



ttipi-ttapa



Isabel PLAZA → 44
100 urte bete ditu almandoztarrak

2015eko otsailaren 5a | XXXV. urtea | 631. zenbakia

www.ttipi.eus

Gehigarri berezia
Inauteriak → 25-35

BERA → 11
Bakea eta bizikidetzaz hitzaldiak antolatu dituzte

DONEZTEBE → 20
Martxoaren 1ean hasiko da Josetxo Ezkurra Memoriala

LABAIEN → 24
Juan Gamioarekin arbola txertaketaz solasean

BAZTAN → 42
Udalaren Euskara Plana inpugnatu du Gobernuak



Sexu gehiegikeriak haurren

Etsaia etxean dagoenean

Aitarengandik abusu sexualak jasan dituen Elisabet beratarrak bere testigantza kontatu dio TTIPI-TTAPARI. Gertatu zitzaiona gainditua badu ere, jendea arazoaz jabetzea nahi du eta behingoagatik zerbait egitea. Izan ere, hotzikara sortzeko moduko datuak dira. 17 urtez beheitiko nesken %23-25ek eta mutilen %10-15ek sexu gehiegikeriak jasaten dituzte eta kasuen %85ean familia barrenean

gertatu ohi dira abusuak, edo haurren inguruko norbait tartean dagoenean. Aitak bien arteko sekretua zela eta egiten ziona inori ez kontatzeko erratan zion Elisabeti. Honen harira, haurrei sekretuak eta sekretuak badirela ongi erakustearen garrantziaz ohartarazi nahi izan du eta sekretu batekin gaizki sentitzen badira, kontatu egin behar dutela erakutsi behar zaiela. **ERREPORTAJEA → 4-5**

Sarasola eta Porturen tortura salaketak tramiterako onartu ditu Estrasburgok

Bi lesakarren tortura salaketei buruz liburua ere kaleratu dute. **→12**

ZOKKETAK → 47

Lorea ARBURUA | Nafarroa Bertsozale Elkarteko idazkaria

«Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nafarroan egiten diren ekimenen artean ekitaldirik inportanteenetako bat da»

Otsailaren 7an Iruñean hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta finala martxoaren 28an jokatu da Elizondon. Nafarroako Bertsozale Elkarteko idazkaria den Lorea Arburua elizondarra txapelketaz eta Nafarroan bertsolaritzak duen egoeraz aritu zaigu.

ELKARRIZKETA → 3



ERREMONTEA → 52

Enpresak ez dio San Migueli kontratua berritu

Julen San Miguel donztebarrari kontratua ez berritzea erabaki du Oriamendi 2010 enpresak, bere portaerarekin ez dagoela konforme agudiatuta.



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttipi.eus**-era



berako agenda
Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net

otsaila

INAUTERIAK

berako agenda

1 igandea
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA:
"Txanogorritxo Rock" (TDiferencia)
17:00 • Kultur Etxean • Sarrera: 3€

20 ortziralea
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA: "Filomena Musugorri Errege eta beste ipuin batzuk" (Maite Franko)
4-7 urtekoentzat • 18:00 • Herri Liburutegian

28 larunbata
BERA KANTARI 18:00 • Herri Liburutegian

19 ortzeguna
IRAGANA: Egia, justizia eta erreparazioa (Paco Etxeberria)
19:00 • Beralandetan • *Gaztelaniaz*

26 ortzeguna
ORAINA: Bakegintzaren ikuspegitik (Aitziber Blanco -Foro Soziala- Iker USon -Baketik-) 19:00 • Beralandetan • *Euskaraz*



BAKEA ETA BIZIKIDETZA:
Iragana, oraina eta etorkizuna
"auzolanean bakea eraikitzen"

ETORKIZUNA:
Berako etorkizuneko bizikidetza landuz (Open Space dinamika)
19:00 • Beralandetan
Elebitan

Entsaioak

11 + 13
asteazkena ortziralea
INUDEAK ETA ARTZAIK
20:00 • Eztegarra Pilotalekuan

12 ortzeguna
KALDEREROAK
19:30 • Musika Eskolan

Inauterietako ekitaldiak

11 asteazkena
INAUTERIETAKO KONTZERTUA
18:00 • Kultur Etxean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika eskola

12 ortzeguna
ORTZEGUN GIZENA
15:45 • Suhiltzaileen Parketik Eztegarra pilotalekura
*OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Eztegarra Pilotalekuan 16:00etan

A ZE NOLAKO BANDA PARRANDA
16:30 • Eztegarra Pilotalekuan

KALDEREROAK
19:00 • Illekuetatik Herriko Etxeko plazara
Ibilbidea: Illekueta-Altzate-Legia-Zahar etxea-Eztegarra-Iturlandeta-Eztegarra-Bidasoa-San Esteban-Herriko etxea
*OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan

15 igandea
INUDEAK ETA ARTZAIK
10:00etatik aitzinera goiz osoan herrian barna
Eztegarra pilotalekutik hasita
18:00 • Eztegarra pilotalekutik Altzateko karrikara

16 astelehena
INAUTERIETAKO ASTELEHENA
Goizean zehar zingar-arrautzea
19:00-20:00 • **Batukada**
Afrikan Lion taldearekin
Altzateko Karrikan

2015



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

www.bertsozale.eus

FINAL-LAURDENAK

IRUÑEA - Katakarak. Otsailak 7, 17:30

IRURTZUN - Kultur Etxea. Otsailak 8, 17:30

ZUBIRI - Gautxori jatetxea. Otsailak 15, 17:30

LIZARRA - Gazteriaren Etxea. Otsailak 21, 17:30

LAKUNTZA - Kultur Etxea. Otsailak 22, 17:30

FINALAURREKOAK

BERRIOZAR - Entzunaretoa. Martxoak 7, 17:30

LESAKA - Kultur Etxea. Martxoak 8, 17:30

BURLATA - Kultur Etxea. Martxoak 15, 17:30

FINALA

ELIZONDO - Pilotalekua. Martxoak 28, 17:00



Antolatzailea
nafarroako bertsozale elkarte



Laguntzailea
ttipi-ttapa

2008ko abenduaz geroztik Nafarroako Bertsozale Elkarteak dabil lanean Lorea Arburua elizondarra. Gaur egun, Elkarteak idazkaria dugu eta urteko egitasmoak antolatzen eta lan-talde-

ak dinamizatzea da bere ardura: Nafarroako Bertsolari Txapelketa, bertso-eskolak, Hezkuntza Arautuko bertsolari-tza programa, Eskolarteko Txapelketa, sariketak, bertsolari-tza

zikloak... Guztia aitzinera ateratzeko diru-iturriak ere berak kudeatzen ditu. Orain, halere, hastear den Nafarroako Bertsolari Txapelketa prestatzen topatu dugu buru-belarri.

Lorea ARBURUA | Nafarroako Bertsozale Elkarteak idazkaria

«Diruz eskas, baina bertsolari-tza inoiz baino sendoago dago Nafarroan»

G. PIKABEA | ELIZONDO

Zein dira Nafarroako Bertsolari Txapelketaren ezaugarriak aipagarrienak?

Nafarroako Bertsolari Txapelketa gaur egun Nafarroan euskaraz eta gaztelaraz egiten diren ekimenen artean ekitaldirik inportanteenetako bat da. Bi hilabetez batetik bertzerera ibiltzen den ekitaldi jendetsu eta bizia da, ehuneko ehuneko bertako sortzaileek egina eta antolatua. Lehia eta kultur adierazpidea orekatzea da bertze ezaugarrietako bat, txapelketa izanik guretzat txapelketa bat izendatzea ez baita inportanteena, txapelketaren inguruan sortzen den zurrinbiloa baizik.

Berrikuntzarik badu aurtengo txapelketak?

Azken urteotako formulak emaitza onak eman ditu eta ez genuen berrikuntza handirik egiteko beharrik ikusten. Hala ere, badira: parte-hartzaile kopurua handitzearen ondorioz kanporaketa saioa egin genuen abenduan, finala berriz ere Elizondon jokatu da... Baina, oro har, azken urteotako eskemarekin segitu nahi izan dugu. Moldaketa gehienak barne funtzionamendukoak izan dira.

Noiz hasi zineten txapelketa prestatzen?

Gaur egun bakarkako txapelketa bi urtetik behin egiten dugu eta erratan ahal da bat akituta



UTZITAKO ARGAZKIA

Lorea Arburua sei urte daramatza Nafarroako Bertsozale Elkarteak lanean.

hasten garelako hurrengorantz pentsatzen. Dena den, eguneroko lanean eta praktikan Bardeak taldekako txapelketa akituta hasi ginen aurtengoari begira, iazko maiatzean. Lehenik talde antolatzaileak martxan jarri eta txapelketaren ezaugarriak zehaztu genituen. Hortik aitzinera, izen-ematea zabaldu, saioak egiteko tokiak lotu, irudia zehaztu, euskarriak prestatu... Egitasmoak duen dimentsioarekin ikusten ez den lan aunitz egin behar da txapelketa antolatzeko.

Zein egoeratan dago Nafarroako Bertsozale Elkarteak?

Azken bi urteak ekonomikorik gogorak izan dira, batez ere Nafarroako Go-

2015EKO TXAPELKETA

«Otsailaren 7an hasi eta martxoaren 28ra bitarte, hiru fasetan bederatzi saio jokatuko dira: bortz final-laurden, hiru final-laurdeneko eta finala. Hasieran, 33 bertsolari izena eman bazuten ere, abenduan antolatutako kanporaketa medio, 30 bertsolari kantatuko dute final-laurdenetan. Ondoko fasera 18 pasako dira eta finalean zortzi izanen ditugu. Final-laurdeneko bat martxoaren 8an Lesakan jokatu da eta finala, berriz, 28an Elizondan»

bernuak *Bertsolari-tza Irakaskuntzan* egitasmoari finantzazioa kendu dionetik. Berez, nahiko mugan egongara beti. Baliabide eskasekin proiekturik osatuena egiten saiatzen gara, baina azken urteotako egoerak aunitz zaildu du gure egunerokoa. Dena den, udaletatik eta kolektibo eta norbanako-enganetik babes handia ari gara jasotzen eta bertze behin ere argi dugu tokiko erakunde gehienek aunitz baloratzen dutela gure lana. Aldi berean, bertsolari-tzaren proiektua Nafarroan inoiz baino biziago ikusten dugu. **Nola ikusten duzu bertsolari-tza Nafarroan?** Aunitzendako txapelketa da bertsolari-tzarekin

duen harreman bakarra, baina txapelketa egiten ari garen lanaren isla baino ez da. Nafarroako Txapelketa sasoi goxoan badago eta inoiz baino parte-hartzaile gehiago baditu, Nafarroako bertsolari-tza momentu onean dagoelako da. Azken urteotan bertsolari-tza geografikorik hedatu egin da; bertso-eskolak herri eta zonalde desberdinetan sortzen ari dira, zaletasuna igo da eta taldekako txapelketak bultzada eman die bertsolari-tzaren molde berriei. Diruz eta baliabidez eskas, baina proiektua inoiz baino sendoago ikusten dut.

Txapelketa beharrezkoa du bertsolari-tzak?

Txapelketen funtzioen gaineko eztabaida historikoa da bertsolari-tzan. Gaur egun eta hemen Nafarroan, Bertsolari Txapelketak proiektuari onura handia egiten diola uste dut, baita euskal kulturari ere. Euskaraz egiten den kultur sorkuntza konplexurik gabe agertzea inportantea da oraindik, eta Txapelketak funtzio hori ere betetzen du. Urtean zehar egiten dugun lan isila azalarazteko ere balio du. Nafarroako bertsolari-tzak duen erakusle horik handiena da eta ez soilik euskaldunen aitzinean, Nafarroako erdalduen aunitzek txapelketari esker izaten baitute bertsolari-tza eta euskal kulturaren berri.

GIZARTEA → SEXU GEHIEGIKERIAK HAURRENGAN

17 urtez beheitikoen bortzetik batek abusu sexualak jasaten ditu

Aitaren abusu sexualak jasan zituen Elisabetek bere kasua kontatu dio TTIPI-TTAPARI

Aitak sexu gehiegikeriak egiten zizkionean, bien arteko sekretua zela erraten zion Elisabeti eta ez zen inori kontatzeko gai izan. Hortaz, hurrei sekretuak eta sekretuak daudela erakustearren garrantziaz aritu zaigu: «sekretu batekin gaizki sentituz gero, kontatu egin behar dute».

G. PIKABEA

17 urtez beheitiko nesken %23-25ek eta mutilen %10-15ek sexu gehiegikeriak jasaten ditu. Halaxe diote ikerketek. Eta kasuen %85ean familia barrenean gertatu ohi dira abusuak, edo haurra- ren inguruko pertsona bat tartean dagoenean. Aitzitik, biktima gehienek isilean gordetzen dute gertatu zaiena.

Berako Elisabet Cantero Torresek ere urteetan ez zuen deus erran aitarengandik jasandako sexu abusuen inguruan, eta normaltasuna erakusten saiatu zen jende aitzinean. Aitak isilean edukitzeko agindu zion sekretua ongi gorde zuen eta aitak, berriaz, bere aita izaten segitu zuen, jendartean gizon langilea eta ongi ikusia izaten.

AITA ETA AMA JOLASA

Aitaren lana tarteko ailegatu zen Extremaduratik (Espainia) Berara Elisabeten familia. Hiru ahizpa eta anaiaren artean zaha-

rrena da Elisabet eta aita igeltsero fina izaki, erakuntzan ez zitzaion lanik faltatu. Horraino arazorik ez. Are gehiago, Elisabetek onartu digunez, «nire aitak Donostiako eraikin garrantzitsu guztietan lan egin zuen eta harro nengoen berarekin. Langile ona zen, eta toki aunitzetik deitzen zioten lanerako». Gaineratu digunez, «bere ezaugarri onak bilatu nahi nituelako aitari buruz aunitz solasten nuen; bere ezaugarri onak azpimarratzen nituen».

Arazoa etxean zegoen. «Nik egunez bizitza bat nuen eta gauez bertzea». Eta gauean hasten zen Elisabeten amesgaiztoa. Aitortu digunez, «abusu sexualen inguruko oroitzapen aunitzik ez dut. Momentu puntualak ditut gogoan. Aldiz, oroitzapen onak xehetasun guztiakin oroitzen ditut». Hala ere, gogoan du bortz urte zitueneko une hau: «aita nire ohera etorri eta jolastu nahi ote nuen galdetu zidan. Bortz urteko



UTZITAKO ARGAZKIA

Elisabet Cantero 5-6 urte zituenean. Argazkia lehen abusuak sufritzen hasi zen garaikoa da.

neska batek jolastu nahi duen galdetuta nola erranen du ba ezetz? Aita eta ama jolasera ariko gine- la aipatu zidan. Nik jostailuak ekarriko nituela erran nion. Berak, ordean, ezetz, ez zela jostailurik behar, bertze modu bate- rajolastuko genuela. Une hartan «deskonektatu» zuela dio, «ez naiz oroitz- ten».

OROITZAPEN ONAK
«Abusu sexualen oroitzapen aunitzik ez dut. Momentu jakinak bakarrik ditut gogoan. Aldiz, oroitzapen onak xehetasun guztiakin oroitzen ditut»

Elisabet CANTERO TORRES
Abusu sexualen biktima

Aitak egiten zionagatik adoptatu zela pentsatzen omen zuen ttikitari: «banekien aitak egiten zidana ez zegoela ongi, eta adoptatua nintzelako egiten zidala uste nuen». Ez du atzendua aitak bien arteko sekretua zela erra-

ten ziola: «jaso nuen heziketarekin arauak zuzen jarraitu nituen. Senideetan zaharrena nintzen eta eredugarri izan behar nuen». Sekretuen harira, zera adierazi digu: «hurrei sekretuak eta sekretuak daudela ongi erakutsi behar zaie. Sekretu batekin gaizki sentitzen badira, ez dute gorde behar, konfidantza gehien dutenari kontatu behar diote eta honek ez badie kasurik egiten bertze bati. Norbaitek zerbaiteginen du».

Zazpi-zortzi urte zitueneko bertze oroitzapen bat ere badu Elisabetek: «Extremadurako herrian kasu bat eman zuten jakitera. Antza, neska bati gauero bere aita ohera joaten zitzaion, nabala paratzen zion lepoan, eta denetarik egiten zion. Neska haurdun gelditu zenean jakin zuen herriko jendeak gertatutakoa. Haurra zeinena zen galdetu ziotenean bere aitarena zela erran zuen. Hala ere, neska haurrarekin bakarrik gelditu zen, eta

aitak eta amak bikote bizi- tza egiten jarraitu zuten». Kasu hark «aunitz beldur- tu» zuen Elisabet eta «une hartatik aitzinera aita ohera etortzen zenean, loarena egiten hasi nintzen, er- ne ikusiz gero, nabalarekin etorri eta neska hari gertatutakoa pasako zit- zaidala pentsatzen hasi nintzelako».

Hortik aparte, oroitzapen «gutti» du, baina «badakit gauez abusuek jarraitu zutela, eta gauez beldurra sentitzen nuela. Beldurrez joaten nintzen ohera». Bere kasuan, mehatxurik ez zela izan kontatu digu «nik loarena egiten nuelako», baina hala- koak ere gertatzen direnez, «mehatxuen beldur- rrik ez izateko» aholkatu du: «mehatxuak ez dira onartu behar. Azken finean, erasotzaileak koldar hutsak dira, hitz eginez gero, kaltetuak eurek izan- nen direla baitakite».

SALAKETA ETA EPAIKETA

Gertatu zitzaiona bere baitan gorde zuen Eli-

sabetek urte aunitzez. Duela hamar urte, ordea, «aski da» erran zuten. Berak eta bere bi ahizpek. Bera ez ezik, ahizpak ere aitaren abusuen biktima izan zirelako. Ongi go-goandu ahizpek ere aitarengandik abusuak jasan zituztela jakin zueneko momentua. «Jasanezina» egin zitzaion, eta «okerrena» ere pasatu zitzaion burutik. Gainera, orduan konturatu omen zen ama denaren jakitun zela: «ttikitari amake ez zekiela pentsatzen saiatzen nintzen, nahiz eta egoera batzuetan bazekiela ikusi». Orduan paratu zuten salaketa.

Hasierako salaketaren ondotik, aita libre gelditu zen. Baina aitak bazuen urruntze agindua. Edozein moduz, «aitak lasai ederrean bizitza arrunta egiten segitu zuen, eta gu beldurrez egoten ginen. Gure inguruan ere ibili zen». Une hartan, ama eta anaiarekin tratuan jarraitu nahi izan zuela dio, «nahiz eta jakin aitarekin zeudela». Baina egoera «eramanezina» bilakatu zitzaionean, «amari aita ala ni aukeratzeko erran nion. Ordura arteko guztia barkatuko niola adierazi nion, baina dena argitara atera eta aita babesten segitzea ez nuela onartuko». Amaren erantzuna, baina, ez zen esperotakoa izan: «aitaren ondoan segiko zuela garbi utzi zidan eta atsekabez haundiz etxetik joan nintzen».

Beranduago etorri zen epaiketa, eta aldi honetan aita kartzelan sartu zuten. Auziak oihartzun mediatiko handia izan zuen. Abokatuek epaiaren berri eman ziotenean, «errudun» sentitu zela dio, «kartzelan nire erruz zegoela sentitu nuen. Baina aldi berean, ez nuen berze inon egotea nahi». Ingurukoen babesik gabe «bakarrik» sentitu zela ere gaineratu digu: «nire lagu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Elisabetek gainditua du gertatu zitzaiona, baina gaia «tabua» dela iruditzen zaio eta horrekin amaitu nahi du. Etxean eta eskoletan landu behar dela uste du.



nek ez zuten jakin nola erreakzionatu. Familiak ez zidan deitu ere egin, amak bazekien, irakasleek ere zerbait sumatzen zuten, baina inork ere ez zuten behatz bat ere mugitu». Bere irudiko, «horrelako edo antzeko kasuak antzeman eta hurrekin hitz egiterakoan, irakasleek eta hurrekin lan egiten duten profesionalek prestakuntza ttikia dute».

Orduan izan zuen GASJE Gipuzkoako Abusu Sexualak Jasandako Elkartearen berri eta «zuzenean» joan omen zen harat: «ez nintzela bakarra ikusi nuen, gehiago ere bazirela». Eta ez da damutu han egindako garaiaz: «halakoetan inork ez daki nola lagundu. Ho-

rrelako egoera batetik pasatu direnak jar daitezke zure lekuan, eta ni GASJerekin hasi nintzen sendatzen. Elkartera ailegatu nintzenean jaso nituen harrera eta babesa izugarriak izan ziren». MDR terapia ere bidelagun izan zuen guztia gainditzerakoan.

Zergatik ez zenuen deus egin? Zergatik ez zinen lehenagotik joan etxetik? Halakoak ere aditu omen ditu eta «astakeriatzat» jo ditu: «5 urteko ume bati zergatik ez zuen deus egin galdetzeak zer zentzu du? Eta helduek zergatik ez zuten deus egin? Haurrak dira babesgabeenak eta helduek ez badute deus egiten...» GASJ Eren bitartez eta

INPOTENZIA

«Nire egoeratik haur aunitz pasatzen ari direla pentsatzea jasanezina egiten zait. Eta inpotenzia sentitzen dut jendeak ez duelako kolaboratzen eta gizartea ez dagoelako kontzientziatua»

Elisabet CANTERO TORRES
Abusu sexualen biktima

ahizparekin haurtzaindegian lanean hasitakoan hasi omen zen «besarkadak eta musuak onartzen eta ematen». Eta hantxe segitzen du, gustura.

'SUPERBIBIENTEA'

Guttitan kontatu du gertatu zitzaiona. Bortz aldiz baino ez, eta azkena TTIPI-TTAPari. Gainerakoak salaketa paratutakoan poliziarri, bikotekideari, epaiketan, eta laugarrenez orain hilabete batzuk, azaroaren 19a Hurrenganako Sexu Gehiegikerien Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Facebook bidez lagunei: «horrelako kasuekin aspertuta nagoelako» egin zuten. «Nire egoeratik haur aunitz pasatzen ari direla

pentsatzea jasanezina egiten zait».

Aitak egin zionak ondorioak utzi zizkiola ere aitortu digu: «ate aunitz itxi zizkidan, jendearekin harremanak...». Baita bertzelako ondorioak ere: «denboraldi batez buruz gora ezin izan nuen lorik egin, hori zelako aitak jartzen ninduen postura...». Baina zorionez, hori iragana da. Orain gertatutakoa gainditua du, eta ez du arazorik horri buruz solasteko. Bere hitzak dira horren lekuko: «orain ongi sentitzen naiz, lasai, eta gainditua ez banu ez nuke kontatuko». Dena den, badira oraindik min egiten dioten egoerak, eta horren adibide, batzuetan sentitzen duen «inpotenzia» aipatu digu: «jendeak ez du kolaboratzen eta gizartea ez dago gai honekin kontzientziatua. Sexu gehiegikeriak sufritzen dituzten haurrak badira, baina inork ez du deus erraten eta egiten...». Onartu digu, Facebook kontatu zuenean, batzuk negarrez etorri zitzaizkiola, baina Elisabetek azpimarratu du ez duela «penarik eman nahi». Jendea arazoaz jabetzea baino ez du nahi, eta behingoagatik zerbait egitea: «hurrekin mugan dagoen jakin behar dute». Gaia «tabua» dela iruditzen zaio, eta horrekin amaitu nahi du. Etxean eta eskoletan landu behar dela uste du eta bera prest dago bere apurra emateko: «eskoleta hitzaldiak ematera joateko prest nago».

Aunitzek erraten omen diote ausarta izan dela, nahiz eta bera ez den iritzi berekoa: «nire jarrera ez da batere ausarta izan. Ausarta baino gehiago superbibientea izan naiz. Ttitikako oroitzapen polit aunitz ditut eta gertatu zaizkidan gauza txar guztiak atzendu eta oroitzapen onetan bilatu dut babesa».



Nire txanda
Ruben GARATE

Autoan edo oinez

Tarteka nere buruari galdera egiten diot, mugitzeko moduaren arabera. Nola aldatzen du gu ikuspegia oinez gabiltzanean edo auto, moto edo motorra duen bertze ibilgailuren bat erabiltzen dugunean. Egoera erabat aldatzen da, edo hala iruditzen zait niri. Lehen egoera: oinezkoa. Beti gurutzatu behar den lekutik gurutzatzen al dugu? Edo nahi dugun lekutik? Eta ez naiz hiri handietaz ari, gure herri ttiketiaz baizik. Seinaleak errespetatzen ditugu? Eta bigarren egoera; zer erran ibilgailu batean igotzen garenean. Norbaitek azaltzen ahal dit zer diren errepidearen alde batetik bertzera doazen marra zuri eta zabal horiek? Jendeak zebrabidea deitzen die, baina ez dakit zertarako margotzen dituzten errepidean. Ulertu dudanez, hasiera batean, autoa gelditu eta oinezkoak errepidea gurutzatzeko omen dira, presarik gabe, baina gelditu gabe, baina zalantza handiak ditut bere eginbeharra betetzen ote duten. Ez dakit ongi azaldu dudan, baina nire galdera hauxe da: Berdin jokatzeko al dugu oinezko edo gidari garenen? Edo alderantziz, bat garenen bertzea kritikatzeko dugu. Azterketa egin dezagun eta ezuste handiak topatuko ditugu.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Inauterietako ikerketa serioa

Desmadrerik handienetzat nituen inauteriek ere ba omen dituzte bere arauak eta legeak. Ikerketa zientifiko serioek diote zer izan nahi genukeen horretaz mozorrotzen garea. Hortaz, adinaren poderioz pirata, torero, emakume, txinatar, hippi, artzain, animadora edo rastafariz disfratzatu garenok nahiko burunahaste izan behar dugu. Eta billar-bolatatz atera direnak, zer erranik ez!

Nabarmentzekoak



Xabier IBARGARAI
Munduko azpitxapeldun

Buruz buruko Munduko pala txapelketan bigarren urtez segidan finalera ailegatu da erratzuarra, baina bigarren aldiz Fusto argentinarrarekin egin du topo. Hirugarrenean beharko du!



Isabel PLAZA
Almandoztarrak 100 urte

Ilbeltzaren 26an mendea bete zuen Jauregiko Isabelek eta familia eta barri-deekin batera ospatu zuen. Lore-xortak, oroi-garriak eta kantua jaso-tzeaz gain, kina eta txanpainarekin ospatu zuten.



Julen SAN MIGUEL
Kontratua ez diote berritu

Gaur egungo buruz buruko txapelduna eta binakako azpitxapelduna izan arren, Oriamendi enpresak ez dio kontratua berritu, zenbaitetan erakusten duen portiera egokia ez delakoan.

Azteraz begira → 2005-II-24 / LURRA 37 zk.



Zuhaitz kimatzeaz solasean Iñaki Aizkorbe sunbildarrarekin

Neguan ere landareak eta zuhaitzak zaindu behar direnez, kimatze lanetan aditua zen Iñaki Aizkorbe sunbildarrarekin bildu zen Lurra aldizkaria duela hamar urte. »Zuhaitza izerditzen hasi baino lehen egin behar dira kimaketak» zioen. Kimatzearen helburuaz galdetzerakoan, Aizkorbe haur erantzun zuen: «Eguzkia sartu behar da zuhaitzaren erdira, frutarendako eta arbolarendako beharrezkoa da. Adar bakoitza nahi duen lekura ateratzen da eta sasia egiten da, kimaketarekin hori bideratzen saiatu behar da. Pixko bat zainduz gero, etxean lau sagar jateko modua egiten dugu! Honetatik ez da inor bizi hemen».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellexea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidente Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Maroto eta 'moro'-arekiko fobia

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Hiru hilabete baino guttiago falta dira udal eta foru hauteskundeetarako. Badirudi betiko alderdi espainolistek aspaldiko krisirik latzena pairatuko dutela. PSE-PSNk Greziako Pasok neba-arrebaren norabidea hartu du, eskuinaren kopia bihurtu eta alternatiba izateari utzi dio aspaldi, inoiz izan bazen. Nafarroan aldaketarako traba, eta mendebaldeko probintzietan PPren proiektu nazional bera duen alderdia. Baina frankismoaren oinordeko ideologikoak ere aspaldian ikusi gabeko egoera larrian daude. UPNk, Espainiako Erresumako indar neofrankista puruenak, arriskuan du hegemonia politikoa. Badakigu zer heldu zaigun hemendik maiatzera: "Vascoek inbadituko gaituzte, ETA, ikurriña, vascuencea...". Ikusiko dugu, diskurtso absurdu horiek oraindik zer nolako babesa daukaten Nafarroan. Nahi baino gehiago, segur aski. Bertzelakoa da PPren egoera bertze hiru probintzietan. Indar marjinal bat bihurtzeko bidean da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Araban, berriz, pronostiko gehienek arabera, boterea galduko du. UPN alde batera utzita, Araban dituen PPK Hego Euskal Herriko botere esparru bakarrak. Eta Javier Maroto Gasteizko alkateak garbi erakutsi du edozerarako prest dagoela horri eusteko, baita estrategiarik zikin eta zabarrera erabiltzeko ere. Nola ulertu, bertzela, jendeari sinestarazi nahi izatea egoera sozio-ekonomiko larriaren errudun nagusiak administrazio publikoari 600 euro ebatsi nahi omen dizkioten lau 'moro' direla? Noiz, eta agerian gelditu denean PP jendearen bizimodurako oinarritzakoak diren gastu publikoak murrizten ez ezik, alderdi horretako kideek milioika eta milioika euro zuzenean ebatsi dituztela guztion dirutik. Marotoren alderdiak. Eta Gasteizko alkatearen erranei jarraiki egin dituzte bulegoak kausa arrazista horren alde sinadurak biltzeko. Eta argi dago txiringito horiek sortu dituztenen soziologia nolakoa den: espainolista eta eskuindarra. Hain zuzen, txiringittoa maneiatzen dutenek urtetan inolako arrazoi eta oinarrik gabe euskal independentistek arrazista deitu die. Bizitzaren ironiak. Baina zabarra bada ere, Marotoren estrategia ez da guttietsi behar. Ez zaio egun batetik bertzera okurritu, arrazista izateaz gain, klasista ere baita. Aberatsek aspaldian erabiltzen duten trikimailua da, langilea langilearen aurka paratzeko motiboren bat harrapatzea. Eta harrapatu du Gasteizko alkate jaunak. Espainiako gizartean gehienbat, baina zoritxarrez euskal gizartean ere errotuta dagoen sentipen irrazional eta primario bat esplotatu nahian dabil Maroto: 'moro'-arekiko fobia. Espero dezagun urak bere bidea segitzea, eta ekainerako Gasteizen ikustea halako ideiak ez dituen alkate bat.

«Aberatsek aspaldian erabiltzen duten trikimailua da, langilea langilearen aurka paratzeko motiboren bat harrapatzea»

Zure balantza orekatu

Amaia ETXEBERRIA OYARZABAL
Malerrekako Osasun Etxeko erizaina

Garai batean gorpuzkera lodia edo gizona edukitzea osasuntsu egotearekin erlazionatuta zegoen. Baina, gaur egun "obesitatea" osasunarentzat mehatxu bihurtu da, batez ere mundu okzidentalean. Obesitatea gaixotasun bat da eta lurralde aurreratuetan garrantzi handia duen arazo bat da. OMS-en arabera epidemia bat da. Zergatik ez da ona gizona egotea? Gizentasuna edo obesitatea arrisku faktore bat delako beste gaixotasun batzuk edukitzeko. Adibidez: diabetesa, tensio arterial altua, bihotzeko arazoak, zenbait minbizi mota etabar. Baina nola jakin dezakegu gizenak gauden ala ez? Nola neurtzen da gizentasuna? Hortarako gorputz-masaren indizea (IMC) erabiltzen da, batez ere medikuntzan. Gorputz-masaren indizea: pisua / garaiera² eginez kalkulatu da. 20 eta 25 artean eman ezkerro pisu egokian gaudela esaten da, 25 eta 29,9 artean gehiegizko pisuan eta 30 baino gehiago obesitatean. Adibide bat jarriko dugu: 80 Kg pisua eta 174 cm-ko garaiera duen norbait. $80/174^2 = 26,4$ ateratzen da. Kasu hontan gehiegizko pisua du. Zer egin dezakegu gizona ez egoteko? Jadanik denak dakigun bi gauza: garbi jan eta mugitu. Eta zer egin dezakegu gizenak gaudenean? Baita ere garbi jan eta mugitu, baina batez ere jateko ohiturak aldatu behar dira. Hona hemen aholku batzuk: -murriztu grasa eta azukredun elikagaiak. -gehiago jan beste honako elikagaietatik: fruta eta barazkiak, eltzekari edo legunbreak, zereal integralak eta fruitu lehorrak. -gorputz ariketa egin: gazteak egunero 60 minutu eta helduak astean 150 minutu. Dena den, norbaitek bere pisu egokia zein den jakin nahi baldin badu edo aholkularitza behar badu pisua jeisteko, osasun etxeko erizainak prest gaude laguntza emateko. Bestalde, gure gizartean indar handia dauka "modak". Kontu handia izan behar dugu, izan ere askotan modak erakusten digun gorputz itxurak ez du zer ikusirik pisu egokia duen gorputzarekin. Estimatu zure gorputza modak aintzat hartu gabe!

«Kontu handia izan behar dugu, askotan modak erakusten digun gorputz itxurak ez du zer ikusirik pisu egokia duen gorputzarekin. Estimatu zure gorputza modak aintzat hartu gabe!»

Irakurleak mintzo

Aurtengo Korrika

Xanti BEGRISTAIN (Auritz)

Ilbeltzaren 17an, Iruñeko Santo Domingo azoka barruan, AEK-k aurtengo Korrikaren aurkezpena egin zuen. Besteak beste, neroni ere gonbidatuta nengoen ekitaldiari neronen sostengua emateko, baina azken orduko arrazoi batek eragotzi zidan bertan parte-hartzea, eta horregatik, nire egon ez izana nolabait konpentsatu eta ordaintzeko, zenbait gauza esan eta adierazi nahi ditut.

Aurtengo Korrika Urepelen hasiko da martxoaren 19an eta Bilbon bukatuko 29an. Jende guztia animatu nahi dut parte-hartzera jardunaldi horretan, eta ez bakarrik ongi pasatu ahal delako, kirola egin ahal delako edota jende ezagun askorekin topatu ahal delako ez, baizik eta Espainia eta Frantziako estatuek Euskal Herria eta bere hizkuntza konkistatuak, menperatuak, kolonizatuak eta morrontzapean dituztenetik, euskara burua altxatu ezinik dabilelako, baina kontuz, ez euskara munduko gainerako hizkuntzak baino gutxiago delako ez, hori guztiz argi dago, baizik eta zapalkuntza horrek oraindik ere

hortxe jarraitzen duela, ezkutuko modu sofiستيكatuago batean nahi bada, baina egon hor dago, eta etenik gabe jarraitzen du gainera bere jardunean, betiere euskara baztertu, balaztatu, oztopatu, desprestigiatu eta azken batean galarazteko. Horixe da euskara dagoen egoera egoteko arrazoi handiena eta bakarra, alegia, Euskararen Herria eta bere nazioa oinperatua dagoelako eta Estaturik gabe.

Horregatik, geuregeurea den hizkuntza besteak baino gehixeago estimatzen dudalako, eta gainera bizirauteko, inguruko beste bi hizkuntza horiek baino askoz ere premia handiagoa duelako, animatu nahi ditut pertsona guztiak, nola edo hala, parte-hartzera Korrikaren alde, batez ere diru-laguntzak emanez, eta gauza bera eginez euskararen alde ari diren gainerako talde, kolektibo, instituzio eta erakundeen alde, batik bat ikusita Nafarroako Gobernu eta Ipar Euskal Herriko arduradun politiko handienak zer politika zeken eta gaiztoa egiten ari diren euskararen aurka.

Bukatzeke, ez dut utzi nahi esan gabe, nire lehenengo lanak AEKn egin nituela joan

den mendean, bospasei urtez gutxienez, Iruñeko Joan Amendux izeneko gaueskolan, eta hantxe irabazi nituen nire lehenengo lansariak. Aspaldian, oso aspaldian, pentsa ezazue, garai hartan bigarren eta hirugarren Korrikak-edo antolatzen aritu baikinen, oso oker ez banago. Gora Korrika, euskara irakasleak eta batez ere Euskal Herri euskalduna!

Euskal artzainen bidaiak

Ameriketara

Laura IGANTZI (Euskal Artzainak Ameriketara)

Euskal Artzainak Ameriketara elkartek, berriro, Ameriketara bidai bat antolatu du. Printzipioz Nevada aldera joatea pentsatu bazuen ere, aurtun Boiseko Jaialdia ospatzen denez, eta ospakizun hori 5 urtetik behin antolatzen denez, hiri hori ere bere ibilbidean sartu du. Beraz uztailaren 29an Bilbotik aterako gara, eta San Franciscon gaua igaro eta gero, goizean Boise aldera joango gara berriro hegazkina hartuz. Bertan 3 egunez Ameriketara hainbat Estatu desberdinetan gelditutako euskaldunak berriro ikusteko aukera izango dugu, eta

besta/emozioa eta elkarteratzeak disfrutatu ditugula zihur gaude.

Honen ondotik Nevada aldera joango gara, Elko Nevada, Weenemoucca eta Renoko hiriak eta euskal etxeak bisitatuz. Azkeneko hiri honetan, Artzainen homenez egindako eskultura ikusteaz gain, bertako unibertsitateko irakasle eta artzain euskaldunen historia hain ongi ezagutzen duen Joxe Mallearen laguntza izango dugu, lertxunen baso batera joateko, eta enborretan idatzitako hainbat mezu ikusteko.

Ondoren, Tahoe aintziran bazkaldu eta bistaz gozatu eta gero, San Francisco, Napa eta Sacramento aldeko lagunak eta senitartekoak ikusteko aukera izango dugu. Itzulera abuztuaren 13an izango da.

Maitasun eta ilusio haundiarekin antolatu dugu bidai hau, eta lehenik elkarteko bazkidei izan emateko aukera eman eta gero, orain artzain eta senitarteko guztiei luzatu nahi diegu deia, beti ere aurreikusi ditugun 70 plaza bete arte. Izena emateko epea martxoaren 21an bukatuko da, eta fianza ordainketa epeari begiratuko zaio, beti ere artzainak lehentasuna izango du-

telarik, aukeratzen duten lagunarekin.

Informazioa gehiago: Laura Igantzi, 948 638 204 eta Angie Otxandorena: 626908076.

Herri-arteko txapelketa

Esteban AROZENA (Goizuetan)

Goizuetan Herri-arteko pilota txapelketak eduki zuen sona ikaragarria izan zen. Hanka hankari kentzeko gauza zen guzia joaten zen herriz herri gure pilotariak animatzera eta bertan jokatzeko zutenen frontoia gainezka betetzen zen.

Urtetan goia jo ondoren gainbehera etorri zen beti gertatzen den bezala, eta hainbat arrazoiengatik, gure herriak ez du parte hartu azken aldian txapelketa honetan. Ba, badirudi gauzak aldatzear daudela, pilota munduan buru belarri sartuta dabilen hainbat herritarri aitutu diegunez 2015ko torneoan Goizuetak izena emanen du, seguro aski 2. mailan.

Lerro hauen bidez animoak eman nahi dizkiet gaia honetan arduratu duten guziei asmo hori gauzatu dedin. Herriko pilota zale guzien babesa ziurtatua daukazue... eta asko gara.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



6
LOTE
ZOKKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com



Prentsatik bildutakoak



«Nik beti erraten dut gorputzak aguanta-tzen duen bitartean joaldun izanen naize-la, baina egunen batean utzi ere egin beharko dut; horregatik trikitixa jotzen ikas-ten ari naiz eta aulki batean eserita baldin bada ere, Ituren eta Zubietako inauterietan jotzen ariko naiz (...) Hau ez dago esplikaz-terik, gurea da, herri baten eta jende baten arima eta bizitza».

Laxaro ERREGERENA
50 urtez joaldun
D. NOTICIAS 2015.01.27



«Duela mende erdi baino guttiago (...) ez zen inor ere harrituko apaiz bat bere sota-narekin pilotan jo-katzen ikusita. Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa pilotan jokatzeko zuten apaizen arteko auzi, salaketa eta eztabai-daz bete dago, eta horietako batzuk hagitz bitxiak dira. Hala ere, protagon-istekin horretaz solastea izan da aberasgarrien».

Tiburcio ARRAZTOA
Laxoan aditua
D. NOTICIAS 2015.01.26

11 galdera labur

Nor dugu Marijo Etxeberria?

Neska gazte alai bat, saltsera xa-marra beharbada...

Berroetan bizi den urdazubiarra ala Urdazubin sortutako berroetarra?

Berroetan bizi den urdazubiarra.

Zer du Berroetak Urdazubik ez due-na? Eta alderantziz?

Uf, biak aski diferenteak dira. Falta ez dut uste deus falta dutenik, bizi-tzeko nahiko baliabide dituzte biek ere. Bietan gustura egoten naiz.

Zein afizio dituzu?

Musika, kantatzea, dantzatzea, bertsoak... Baita on-gi jatea, leku berriak ezagutzea, lo egitea... ere.

Asteburuko gustuko plana?

Aste tartez baino lo gehixeago egin, mendian itzuli bat eman, la-gunekin eta familiarekin egon, besta pixka bat egin... Sobera motzak dira nahi dudana guziaz egiteko. Kar, kar, kar.

Besta egiteko toki bat?

Normalean besta egiten ez dudana edozein toki, usaia lekutik ateratzea gustatzen zait. Batzuk erratekotan, Hernani, Za-

rautz... Baina zonaldeko herrietako bestak ere aunitz gustatzen zaizkit, udako plaza giroa polita izaten da.

Gaueko edo eguneko besta nahia-go?

Eguneko besta gero eta gehiago, gehienetan goizaldean finitzen du-gun arren.

Zer dute Urdazubiko inau-teriek berezia?

Gazte guztiak edo gehienak elkartzeko bestak direla. Etxez-etxe pasatzean, urte guzian ikusten ez ditugun her-ritarrak, gehienik aitatxi-ama-txiak, ikusten ditugulako ere bereziak dira. Herriko bes-tak baino maiteago ditut.

Bentaz-benta ala base-rriz-baserri gusturago?


Bietan disfrutatzen dugu, baina bentetan lehenbizi-ko egunean ibiltzen garen- ez, gogo eta indar gehia-gorekin hasten gara.

Bidaiatzea maite duzu?

Bai, edozein toki berri ezagu-tzea plazer bat da. Hainbertze leku daude bisitatu nahi dituda-nak... Argentina, Egipto...

Amets bat?

Osasun ona segurtatzea familia eta ingurukoendako urte auni-tzez.



Marijo ETXEBERRIA → Urdazubiko gaztea

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atak, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuak
Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
• Kirol Fisioterapia
• Osteopatia
• Masaiak
• Trafiko istripuetan aholkularitza
• Istripu eta osasun aseguruak
• METODO BERRIA
Umeentzako arnas fisioterapia
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

SMAZIZIOR edariak
EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA
T.F. 948 631 557
Haitzulo Ziobi, 3 ALKAIAGA
egoneta, maziziorsenper@gmail.com

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

KULTURA

BERTSOLARITZA → ESKUALDEKO 17 ORDEZKARI

Nafarroako txapelketa nagusia asteburuan abiatuko da

Finala Elizondoko pilotalekuan izanen da martxoaren 28an

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 7an hasi eta martxoaren 28ra bitarte Nafarroako bertsolariak txapel beltza lortzeko leihan ariko dira. 42. edizioa da aurten goa eta inoizko parte-hartzerik zabalena izan du, hain zuzen, 33 bertsolari eman zuten ize-

na eta abenduan egin zen kanporaketaren ondoren, orain 30 aterako dira plazara.

ESKUALDEKO 16 BERTSOLARI

Hainbat bertsolari beretanekin batera, aurpegi berriak ere izango ditu txapelketake eta eskualdeko ordezkari zabala izanen da. Xabier Terreros, Iñigo Olaetxea, Iñarrieta, Aimar Karrika eta Eneko Fernandez lesakarrak; Patxi Castillo eta Julen Zelaieta beratarrak, Amaia



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2013an Iruñeko Anaitasun jokatu zen finala eta aurten Elizondoko frontoian izanen da.

Elizagoien eta Ander Fuentes Itturri Zubietarrak, Alazne Untxalo eta Egoitz eta Iker Gorosterrazu iturendarrak; Bittor Elizagoien arraiotzerra, Kotte Plaza elizondarra eta Migel Mari Elozegi Luze leitzarra.

Txapelketak aitzineko urtetako molde bera izanen du. Bi hilabetez, hiru fasetan banatuta 9 saio jokatu dira: 5 final-laurden, 3 finalurreko eta finala. 30 bertsolari kantatuko dute fi-

nal-laurdenetan, ondoko fasera 18 pasako dira eta finalean 8 bertsolari ariko dira kantuan. Finalurreko saioetako bat Lesakan izanen da, martxoaren 8an eta final handia Elizondoko pi-

lotalekuan martxoaren 28an.

Saio guztietarako sarrerak aurrez salgai jarriko dituzte eta internetez ere erosten ahaliko dira, www.bertsosarrerak.eu atarian.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioak

Final-laurdenak

Otsailak 7 - IRUÑEA

Jon Barberena, Bittor Elizagoien, Joxema Leitza, Unai Uberetagoena, Aritz Saragueta, Oier Lakuntza

Otsailak 15 - ZUBIRI

Oskar Estanga, Amaia Elizagoien, Aimar Karrika, Joseba Beltza, Sarai Robles, Saioa Alkaiza

Otsailak 8 - IRURTZUN

Julio Soto, Alazne Untxalo, Julen Zelaieta, Migel Mari Elozegi Luze, Kotte Plaza, Iban Garro

Otsailak 21 - LIZARRA

Eneko Fernandez, Egoitz Gorosterrazu, Ander Fuentes Itturri, Iker Gorosterrazu, Mikel Lasarte, Josu Sanjurjo

Otsailak 22 - LAKUNTZA

Eneko Lazkoz, Patxi Castillo, Iñarrieta, Iñigo Olaetxea, Xabier Maia, Xabier Terreros

Finalurrekoak

Martxoak 8 - LESAKA

Martxoak 7 - BERRIOZAR

Martxoak 15 - BURLATA

FINALA: Elizondoko pilotalekuan martxoaren 28an

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

bizikletak, osagarriak eta kirol-makinak!!!

CCNDIA ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

15. urteurrena
DESKONTUAK
%5etik %50era

GIZARTEA → OTSAILEAN ETA MARTXOAN

Bakea eta bizikidetzari buruzko solasaldiak egingen dituzte

Aranzadiko Paco Etxeberria auzi-medikua izanen da hizlari otsailaren 19an Beralandetan

TTIPI-TTAPA

Auzolanean bakea eraikitzen goiburupean, Bakea eta bizikidetzari iragana, oraina eta etorkizuna landuko duten solasaldiak egingen dituzte datozen asteetan Beralandetan.

Zehazki, otsailaren 19an, ortzegunean, *Iragana: Egia, justizia eta erreparazioa* solasaldia eskainiko du Aranzadiko Paco Etxeberria antropologo, ikertzaile, auzi-mediku eta forentse ezagunak 19:00etan gaztelaniaz.

Otsailaren 26an, *Oraina: bakegintzaren ikuspegiak* landuko dituzte Foru Sozialeko Aitziber Blancok eta Basketik Fundazioko Iker Usonek. Solasaldi hau

euskaraz eskainiko da 19:00etatik aitzinera.

Bukatzeo, martxoaren 5ean, ortzegun arratsaldeko 7etan *Etorkizuna: Berako etorkizuneko bizikidetzari landuz* Open space dinamika sustatuko dute elebitan.

Komiki lehiaketa

Liburuaren Eguna hurbiltzen ari dela-eta, Liburutegiak eta Kultur Batzordeak komiki lehiaketa antolatu dute, euskarazko komikigintza sustatzeko helburuarekin. Gaia libre aizen da eta komikiek eskuz eginak izan behar dute euskara hutsean. Lanak liburutegian aurkezteko epea apirilaren 13an, 21:00etan bukatuko da eta sariak apirilaren 23an banatuko dituzte liburutegian. Jasotako komiki guztiek irakusketak egingen dira.

Partehartzaileak hiru kategoriatan banatu dituzte, adinaren arabera. A mailan 10 urte artekoak, B mailan 11-15 urtekoak eta C mailan 16 urtetik goitikoak. Kategoria bakoitzean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Inauterietako entsaioak

Aurten kaldereroak eta Inude eta Artzaiak asteburu berean suertatzen dira. Inauterietako programaren berri aldizkari honetako gehigarri berezian dituzue, baina modu egokian dantzatzeko entsaioak ere egingen dira. Honela, otsailaren 12an, ortzegunean 19:30ean kaldereroen entsaioa egingen da Musika Eskolan. Inude eta artzairen entsaioak, berriz hilaren 11n eta 13an (asteazken eta ortzirala) egingen dituzte 20:00etan Eztegarra pilotalekuan.

sari bakarra izanen da, A mailan 100 euroko bonua, B mailan 200 euroko bonua eta C mailan 300 euroko bonua.

Ate Irekiak kiroldegian

Urdiberaren hamabigarren urteurrena dela eta Ate Irekien Eguna egingen ari dira otsailaren 2tik 6ra Toki Ona ki-

roldegian. 14 urtetik goitikoek kirol jarduerak ezberdinetan (aerobika, ciclo, entrenamendua suspentsioan, GAP...) doan parte hartzeko aukera dute egunotan.

Modu berean, otsailaren 4an, asteazkenean, abonatuak nahi duten pertsona eramateko aukera izanen dute gimnasio eta sauna-lu-

rrun bainu gunera, doan.

Otsailaren 7an, azkenik, 14-18 urte artekoek TRX-Ciclo saioan doan parte hartzeko aukera izanen dute, larunbat eguerdiko 12:00etan. Horretarako, otsailaren 6a, ortzirala baino lehen egin behar duzue izen ematea kiroldegian (948 630215).

LEHENBIZIKOIA BERALANDETAN EGIN BEHAR IZAN ZUTEN

Hilabetearen behin kontzertuak antolatzen hasiak dira Kaxerna Gaztetxeak

TTIPI-TTAPA

Ekimen berri bati ekin diote Kaxerna Gaztetxeak. Hain zuzen, hilean behin, ortziraletan, kontzertuak antolatzen hasiak dira, eskualdeko musika taldeen eskutik. Hasiera emateko, urtarilaren 30ean, RIP taldea eta bertako kitarrajolea zen Jul Bolinagaren omenezko kontzertu-ome-

naldia antolatu zuten, baina Beralandetan egin behar izan zuten. Juan Losa UPNko zinegotziak «eraikinaren prestazioaren aitzakiarekin» Foruzaingora jo duela alpatu dute Gaztetxetik eta hortaz, «gura aurkako guda partikularrean, bere aitzakiak agortu artean» udaletxeko eraikinak erabiliko dituzte.


Xirgil
Alzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462


elika
Dietetika eta elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behe 31780 BERA
948 631 283 645 708 512
elikabera@hotmail.com


Arturo
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria
Alzate, 20 BERA T. 948 630 136

LESAKA

GIZARTEA → EUROPAKO GIZA ESKUBIDEEN AUZITEGIAK

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren tortura salaketak tramiterako onartuak

Bi herritarren tortura salaketei buruzko liburua ere argitaratu dute

Aitor AROTZENA

Guardia Zibilak torturatu zituztela salatuz, Mattin Sarasola eta Igor Portu aurkeztutako helegitea tramiterako onartu du Europako Giza Eskubideen Auzitegiak. 2010ean, Gipuzkoako Probintzi Auzitegiak bi herritarren atxiloketan eta galdeketa parte hartu zuten lau guardia zibilei espetxe zigorra paratu zien, tortura salaketen ondorioz, baina Espainiako Auzitegi Gorenak absoluzioa eman zien. Aitzinera eginez ailegatu da orain auzia Estrasburgora.

Sarasola eta Portu 2008ko urtarrilaren 6an atxilotu zituzten, ETA-koak zirela leporatuta. Atxilotu eta biharamunean, Igor Portu Donostiako ospitalera eraman behar izan zuten, ospitaleetik adierazi bezala «oso larri». Sarasola ez zuten eraman ospitalera, baina epaiketan salatu zuen kolpeak eta mehatxuak jasan zituela etengabe.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Berriz ere bizkaitarrak nagusi Xabi Zozaia paleta txapelketan

Batzoki elkarteak zazpigarren aldiz antolatutako Xabi Zozaia paleta goma txapelketako lehen eta bigarren mailako finalak jokatu ziren urtarrilaren 17an. Lehen mailako final gogorrean, iaz ere txapelkun izan ziren Bizkaiako Amorotoko Jon Arriagak eta Zornotzako Iñaki Undak 25-22 irabazi zieten Ramos eta Zubimendi hernaniarrei, hain zuzen iaz bigarren mailako txapela jantzi zutenei. Bigarren mailako finala ez zen hain berdindua izan eta Oronoz-Mugairiko Joseba Berhok eta Josu Goñik 25-15 irabazi zieten Alzuri eta Urdanpilletari.

LIBURUA

Bi lesakarren tortura salaketei buruzko liburua ere argitaratu dute. Xabier Makazagak egin du *El caso Portu-Sarasola. Los encubridores de la tortura al desnudo* izenburupean. Estatuak torturak ezkutatze eta torturatzen segitu ahal izateko sortu dituen egiturak aztertu ditu idazleak liburuan, Portu eta Sarasolaren kasu zehatz honetatik abiatuta.

MURALA XEHETU DUTE

Antepatako parkean egindako txikizioa salatu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Antepatako parkean dagoen murala xehetua agertu da. Gazte asanbladak margotu zuen murala auzolanean eta iazko San Juan bezperan Euskara batzordeak antolatzen duen egunean, herriko haur, guraso eta nahi izan zuen guztien artean margotu zuten, urte horretako leloarekin: *Guk euskaraz, zuk zergatik ez?*. Urte hasieran *guk, euskaraz eta zuk* hitzak xehetuak agertu ziren eta urtarrilaren 15ean, esaldi osoa agertu da xehetua. Udalak Foruzaingoari deitu eta salaketa jarri du.

FLASH

Elkartasun zozketa

San Anton egunean zozketatu zen elkartasun saskia. 2.625 zenbakiaren jabe den Iban Garrok zuen zenbaki saritua. Herriko komertzio eta ostaluetek saskia osatzeko emandakoa eskertu nahi izan dute antolatzaileek.

Benan, mendia arnas Harriondoan

Aneto mendian hil zen Benantxio Irureta azpeitiarraren omenez Lagun Onak Mendi Bazkunak argitaratu eta Xumar Altzugarai lesakarrak zuzendu duen *Benan mendia arnas* dokumentala eskainiko dute otsailaren 8an, igande arratsaldeko 6etan Harriondo Kultur Etxean.

Zakozarren bilera

Zakozarretan parte hartu nahi dutenek otsailaren 7an, larunbat arratsaldeko 6:30ean izanen dute bilera Arranon. Apuntatzeko eta zakuak hartzeko aukera izanen dute. Inauterietako igandean zakozarrak belarraz bete eta josteko laguntzaileak ere behar dituzte.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
Beheko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

GIZARTEA → ABENDUAN

Larre erreketak eginen dituzte hainbat eremutan

Hamar lagun inguru behar dira mendiak garbi edukitzeko lanetarako

Irune eta Itsaso

Zimitzuko ardiaborda aldea, Bagolarre, Harrikazta azpia, Artzama eta Orizkiko ezkarra alderdiak herriko lurretan dauden oteak eta zikinak erre egingo dira baimena ailegatu orduko eta hamar bat lagun behar dira laguntzeko. Lan horietan parte hartzeko prest dagoenak Herriko Etxera deitu behar du izena emateko.

Bortzirietako eskuz banakako XIV. txapelketa

Urtarrilaren 22an hasi zen Bortzirietako es-

kuz banakako XIV. Txapelketa. Etxalarren asteazkenetan jokatu dira partidak eta herriko hainbat pilotari gazte parte hartuko dute txapelketa honetan: Lander Lasaga (umeak mailan 8-10 urte bitartekoak), Joseba Telletxea, Niko Garcia, Asier Martin, Aiert Irigoien, Markel Etxarte, Unai Arburua eta Koldo Bizente (kimuak mailak 10-12 urte) eta Xabier Telletxea (haurrak mailan 12-14 urte)..

Inauteriak martxan

Otsailaren 12, 15, 16 eta 17an izanen dira inauteriak herrian. *Iñaute-iñaute* edota astearteko bazkarian apuntatzeko listak herriko ostatuan daude eta otsailaren 8a arteko epea dago. Inauterietako programa ale honetako gehigarri berezian duzue.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Laugarren urtez trikiti afaria Etxalarren

Urtarrilaren 24an Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako hainbat trikitilari ezagun bildu ziren Etxalarren. Hauen artean Mikel Markez, Izer, Larrañaga, Harkaitz Allur, Elustondo, eta abar luze bat. Ilunabarrean poteoarekin hasi eta goizaldera arte iraun zuten trikiti doinuek.

Gatza negurako

Usoa kooperatiban gatza dago herritarrentzat, datozen eguraldi hotzetan behar duenak erabiltzeko.

Otsaileko mendi ateraldiak

Zanpingorri mendi taldeak antolatuta, hauek izanen dira otsaileko mendi ateraldiak: Otsailaren 1ean Monozorrotz, otsailaren 8an Alkurruntz, otsailaren 15ean Gorospil eta otsailak 22an Bianditz. Irteera guztiak 8etan abiatuko dira herriko plazatik.



ARGAZKIA: ITZIAR MENDIKOIA

Maskara tailerra lanean

Asteartetan, Kultur Etxean, haurrentzako maskara tailer bat antolatu da. Honen gidaria Itziar Mendikoa da eta doakoa da. Parte hartzeko nahikoa da bertara agertzea aipatutako egunean. Hori bai, bi saio bakarrik geratzen dira: otsailaren 3an eta otsailaren 10ean.

 **USOA**
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarniak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Etxariak - Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

 NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ENEEK

Inskripzio Zenbakia 1435

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika

Tel: 948 625 474

BERA NAFARROA

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA | Dantzarinea 31712 URDAX | Ibarin 31780 BERA | Luzaide 31660 LUZAIDE



ARANTZA

INAUTERIAK → ORTZEGUNETIK LARUNBATERA

Bi bikote misto aurrez-aurre ariko dira aizkoran larunbat honetan

Mozorro Zuriak prestatutakoa gozagai izanen dugu egunotan

Nerea ALTZURI

Aurten ere gazte kua-drilla ederra bildu da Mozorro Zuriaren eginbeharrerarako. 30 inguru Mozorro Zuri inauterietako egitaraua prestatu dute mozorraldiaz gozatzeko.

Ortzegunean, Primi ostatuan ongi gosalduta ondolik, eskolako lagunei bisita eginen diete. Eskolako ikasle eta irakasleek harrera ezin hobea egiten diete eta gainera, ohiturazko paperezko bizkarreko koloretuak prestatzen dituzte. Azkilarrea eta Aientsa auzoak talde batek; eta bertze taldeak, berriz, Bordalarrea eta Eguzkialdea... Horrelaxe banatzen dira Mozorro Zuriak puxka-puxka eskean ibiltzeko. Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariak lagun

izanen dituzte. Egun osoan eskean ibili ondotik, afaria Primin izanen dute.

Ortziralean gosalduta ondotik, herrian barna eskean ibiliko dira. Pabloenean bazkalduko dute. Arratsean, emakumeen afaria Burlada jatetxean izanen da. Bertso afaria, berriz, Aterpean izanen da Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin. Gauerditik aitzinera, Gorapean Agerralderen eskutik dantzaldia izanen da.

Larunbatean, goizean atsedean hartu eta Burladan bazkalduko dute. Arratsaldean, haur, gazte-txo eta guraso mozorro-tuen kalejira izanen da. 18:00etan Los Chamucos mariatxi taldearekin poteoa izanen da eta 19:00etan Mozorroek herri kirol saioa eskainiko dute. Horrez gain, Xabi Agesta eta Nerea Sorondok osatutako bikotea, Julio Lukanbio eta Leire Astiasaran bikotearen kontra ariko da aizkoran. Mozorroek Elkartearen afal-



ARGAZKIAK: ANA LARRETXEKA

Arkupeak-eko besta

Arkupeak Elkarte herriko bazkideen besta joan den ilbeltzaren 25ean egin zuten. 28 bazkaltiarrek Pabloenean bazkari goxoa egin zuten, eta ondotik mus txapelketan sei bikotek parte hartu zuten. Timoteo Iguzkiagirre eta Santiago Iparragirre irabazi zuten musean; bigarren, Bonifazio Oskoz eta Pantaleon Errandona gelditu ziren; eta hirugarren, berriz, Eusebio Gonzalez eta Matias Arozena. Egun ederra pasatu zuten. Arkupeak Elkarte, 80 inguru bazkide daude herrian eta Maria Dolores Iturria Mazizior herriko ordezkaria edo delegatua da.

duko dute eta gauerditik aitzinera, Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da Gorapean.

ESKOLAN ERE INAUTERIAK

Ortzegunean, inauteri eguna ospatuko dute eskolako lagunek. Goizean Mozorro Zuriaren bisita jasoko dute eta bazkaldon, mozorro besta eginen dute. *Herri Kirolak* gaia aukeratu dute aurten mozorrotzeko. Herrian barna trikitilarietako kalejira eginen dute koplak kantatuz. Ondotik, frontoian herri kirol saioa eskainiko dute eta egunari akabera emateko eskolan berenduko dute.

Ortziralean, berriz, Lehen Hezkuntzako 4,5,6 eta DBH 1 eta 2. mailako ikasleak bi taldetan banaturik auzoetan eskean ibiliko dira trikitilarietako alaituta. Tikiagoak, berriz, herrian puxka-puxka ibiliko dira.

Bertze hitzorduak

Aurten kruzeroa egiteko dutenak otsailaren 15ean bilduko dira Zahar-

Txokoan, 17:00etan. Bidaiaren egitarauari gainbegirada eman eta arto opilekin berendua eginen dute. Une honetan, 52 dira bidaiara apuntatuak.

Otsailaren 22an, bertzelde, Zahar-Txokoko jubilatuek iaizko konfitei erreposoa egiteko bilduko dira, 18:00etan. Ondotik arto-opilekin berendua eginen dute.

Ba al zenekien...

Aurten Baztanen eginen den Nafarroa Oinez bestako arropa koloretsua Pabloenean salgai paratu dutela? Kamisetak, jertseak, legginak, txaketak... Arropa berriak ailegatu ahala, Baztanetik Pabloenera bideratuko dituzte.



LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

ERANDONKA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidaso, 76 - atea 21-22
31780 BERA

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
iturgintza · gasa
kalefakzioa
Tfnoa: 629449602 · BERA

hezi

Bihotza

Jesusen bihotza ikosteko

948 63 00 09
info@jesusenbihotza.com

Aurre izen-ematea otsailaren 9tik 13a arte

GIZARTEA

GIZARTEA → KONTSEILUAREN AGERRALDIA EUSKARAREN ALDEKO ERAGILEEKIN IRUÑEAN

Vascuencearen Legeari aurre eginez Nafarroan euskarak aitzinera egingen du

Normalizazioa erraztuko duen hizkuntz-politika eskatuko dute apirilaren 25ean Anaitasunan

TTIPI-TTAPA

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok agerraldia egin zuen urtarrilaren 26an Nafarroako hainbat lagun esanguratsuk lagunduta. Iruñean egin zuten agerraldian Vascuencearen Legearen aldaketaren inguruko iritzia eman zuten. Bide batez, gaia aztertzeko ilbeltzaren 27an egitekoa zen Plenoa otsailaren 19ra atzeratu izana salatzen zuten.

Bilbaorekin batera euskalgintzako ordezkariak eta alor desberdinetan aritzen diren Nafarroako pertsona esanguratsuak izan ziren agerraldian. Kontseilu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontseiluko kideak eta euskararen aldeko eragileak, Iruñean egindako agerraldian.

ko idazkari nagusiak guztien izenean hitz egin zuten: «28 urte euskararen normalizazioa eragozteko helburuz pentsatutako lege baten eraginpean. 28 urte Nafarroa zatitzen, nafarrak urruntzen, harresiak eraikitzen, hizkuntza-eskubideak urratzen lege bitartez. 28 urte Nafarroari bere izana legez aldatu nahian».

Otsailaren 19ko ple-noan, ustekaberik eze-

an, «partzialki, arinki bada ere, zoritzarreko legea aldatua izango da eta euskararen aldeko mugimenduak aukera berriak izango ditu nafarrei haiena dena itzultzeko lanak egiteko orain arte debekaturik izan ditugun ikastetxe publikoetan» aipatu zuen Kontseiluko idazkariak.

Lege aldaketa horren bitartez aukera berriak irekiko omen dira eta «gure apustua euskara-

ren aldeko normalizazioa indartzea izango da, ikastetxe publikoetan lerroak irekiz eta ikastolak indartuz. 1+1 egitera goaz, herri ekimenez, bat eginda aurrera egitera goaz».

Halere, Kontseiluaren ustez, Hizkuntza-politika egokia izateko 4 zutabetan oinarritu behar da: «Alde batetik, arkitektura juridikoaren egokitzapena egin beharra dago normaliza-

zioa errazteko, bestaldetik, plangintzak abian jarri behar dira hizkuntza-politika politika planifikatua delako, hirugarrenez mota guztietako baliabideak esleitu behar dira eta azkenik, herri gogoaren elikadura etengabea bermatu behar da herritarrek direlako normalizazioaren motorra».

Beraz, Kontseilua eta euskararen aldeko eragileak ez dira konformatzen aldaketatxoarekin: «Lege berri bat nahi dugu, behar dugulako. Sektore guztietan eta lurralde osoan eragingo duen legea nahi dugu. Arkitektura juridiko berria eraiki behar da, plangintza sendoen bitartez garatuko dena eta baliabide nahikoak esleiturik. Euskararen normalizazioa erraztuko duen hizkuntza politika behar dugu eta hori nola egin behar den publikoki azalduko dugu apirilaren 25ean Anaitasunan antolatuko dugun ekitaldian».

NAFARROAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK

Mugakide diren udalerrien osasun-laguntzarako akordioa berritu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilari Marta Verak eta Euskal Autonomia Erkidegoko haren homonimo Jon Darpónek akordio bat sinatu zuten urtarrilaren 23an Donostian. Haren bidez, bi komunitateen arteko lankidetzaz berritzen da datozen hiru urterako mugakide diren udalerrien osasun-arretarako. Akor-

dioak Nafarroako udalerrietako 10.000 biztanle ingururi eragiten die: eskualdeko Arantzeta, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Arano eta Goizuetari ez ezik, Arabarekin muga egiten duten Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meanori.

Zehazki, Arantzeta, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Berako bizilagunek laguntza espezia-

lari izango duen laguntza zentzuzkoa izango da, eta Arano eta Goizuetakoek, Donostiako Ospitale Unibertsitarioan eta haren inguruko zentroetan.

Bertalalde, Osasunbideak Arabako zenbait herritako bizilagunei ere emanen die osasun-laguntza: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran eta Haran/Valle de Arana.

Gainera, Osakidetzak "bigarren iritzia" eskatzeko edo goi-espezializazio modura egindako desbideratzeei arreta emanen die, honako hauei buruzkoak direnak, batez ere: azterketa genetikoak, anatomia patologikoa, fibromialgia, diagnostikoak, esku hartzeko erradiologia, eta espezialitate jakin batzuk, neurokirurgia eta onkologia bereziki.

GIZARTEA → OTSAILAREN 12AN

Helduentzako hezkuntzari buruzko saio informatiboa prest du Udalak

Udaletxean emanen da 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Igantziako Udalak, heldu den ortzegunean, otsailaren 12an, arratsaldeko 7etan helduentzako hezkuntzari buruzko saio informatiboa antolatu du. Udaletxean bertan izanen da.

Bortziritako, Maleurrekako eta Baztango udalek, Gizarte Zerbitzuek eta Cerderna-Garalur-ek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza de-

partamentuan zonaldean helduendako hezkuntza zentro baten beharra azaldu zuten. Nafarroako bertze zonaldeetan bada horrelako eskaintzarik, eta gure zonaldea hau eskaintzen ez den bakarra da. Erantzuna baikorra izan zen eta ondorioz, Beran, Donezteben eta Elizondon gai honen inguruan hitzaldiak antolatu ziren, etxeetara trip-tikoak banatu ziren eta irratietan publizitatea egin zen. Orain udal barnekoitzean saio informatiboak egiten hasi dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Otsailaren 13an berriz idekiko ditu ateak Irrisarri Land-ek

Eguberri ondoko atsedendialdiaren ondotik, otsailaren 13an berriz ere ateak idekiko ditu Irrisarri Landek. Prezio sistema berria izanen du, errazagoa eta jarduera guztietaz gozatzeko aukera ematen duena. EmoZiona Ticketarekin bike park, tirolina, ibilbide, jolastoki eta zubi tibetarra erabiltzeko aukera izanen da. Heldu eta haurrendako prezioak ezberdinak izanen dira eta hotelean, bordetan edo aterpean daudenentzat prezio merkeagoak. Euritarako jantziak ere donan utziko dituzte, kanpoko jardueretan erabiltzeko. Berrikuntza hauek guztiak Fitur Ferian aurkeztu zituen Joxe Elgorriaga kudeatzaileak.

Saioan hurrengo gaiak jorratuko dituzte: helduen alfabetatzea, helduen ikaskuntza, moduloak, INEMen eskaintzen diren ikastaro eta lanetarako beharrezkoak diren ikasketak, gazte

garia utzitako ikasketak nola osatu, DBHko tituloak, oinarrizko kompetenziak.

Interesatuak daudena bilerara hurbildu. Helduen Ikaskuntzarako zentroa zonaldean

nahi badugu, jendearen inplikazioa behar da, ize-na eman eta parte hartu.

Informazio gehiago nahi duenak Udaletxera edota Gizarte Zerbitzuetara deitu.



BORTZIRIAK

25 urte
eskerrik asko guztioi!!!

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

IRA-GAR-KIA

aldizkarian interneten

8EURO



ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
www.ttipi.eus

SUNBILLA

GIZARTEA → URTARRILAREN 23TIK 25ERA

Kolorez eta giroz beteta joan dira inauteriak aurten ere

Igandeko karroza desfileak jendetza bildu zuen

Maider PETRIRENA

Kolore eta giroz beteta joan dira aurten ere inauteriak. Igandeko karrozen desfilearengatik dira ezagun inauteri hauek, baina ortziralek hasita, asteburu osoan giro bikaina izan zen.

Ortziralean gazteek eman zioten hasiera gosari eder batekin Ariztigan Kanpinean. Arratsalde partean haurren txanda izan zen. Aurtengoan eskolako haurrek Kalderero gaiarekin hainbat kanta eta dantza ikasiz eman zioten herriari buelta, frontoian itzulia bukatuz. Gauean berriz, emakumeen txanda izan zen. 103 emakume Ulibeltzak elkarteak elkartu ziren, hori bai gizonak sukaldetan eta zerbitzari lanetan zizutuzela. Aurten hitu zerbitzari berri zituzten: Aritz Arriola, Mikel Arretxea eta Jon Anzizar, sukalde lanetan berriz, Florentino Guelbentzu, Juan Miguel Urroz eta Jexux Mari Jorajuria. Afari ederra jan ondotik sorpresaren txanda ailegatu zen. Nafarroako jokat izan zituzten Sunbillako Ulibeltzak Elkar-

tean. Zoragarria izan zen prestatutakoa. Zorionak hemendik antolatzaileei.

Larunbatean berriz, gazteek herrian eskean ibiltzen dira. Arratsaldean berriz, haurren txanda izan zen Ulibeltzak elkarteak.

KARROZA DESFILEA

Igandea, egun ederra izan zen, Karrozen desfilea. Hotza bai, baina neguko egun eguzkitsua suertatu zen eta horri esker, kolorez betetako goiza izan zuten Sunbillan. Betiko hiru karrozak eman zioten irekiera karrozen desfileari. Bertan 350 litro salda, 80 kilo gaztain, 1.800 arraultzen torillak, 175 litro ardo, 40 kilo hirinarekin egindako taioak eta 10 gazta barra banatu zituzten ikuslearen artean. Ondotik, zerrria eta bildotsa urtero bezala desfilea bukatutakoan zozketatzeko eta segidan, Elutxa txarngak alaiturik Sanferminetako peñak Padilla toreatzailearekin, mendi errusiarra, Sunbillako unibertsitatea, martziar noak, veneziako inauteriak, tanborrada, martetxof, amerikarrak euskal etxean, sant-eroak, etab.

Desfilearen ondotik, aipatu bezala, zozketa egin zen. Aurten 7.000 boleto saldu dituzte eta sariak herrian gelditu dira. Zerria Joxemi Petri-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA JAIONE OTXANDORENA
Bistan denez, giro bikaina izan zen inauterietan.

renarentzat eta bildotsa, berriz, Pako Altzugaraiarentzat izan da.

Ulibeltzak elkarteak musika. Honekin akautu dira inauteriak. Hurrengo urtean berriz.

Ulibeltzak elkarteak musika. Honekin akautu dira inauteriak. Hurrengo urtean berriz.

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK ONARTU DU

45 etxebizitza eraikitzeke aukera zabaldu du Udal Hirigintza Planak



Horietatik zortzi Babes Ofizialekoak izanen lirateke

TTIPI-TTAPA

Oizko Udalak sustatutako Hirigintza Plan Orokorra behin betikoz onartu du Nafarroako Gobernuak, Luis Zarra-luqui sustapen kontseilariak sinatutako Foru Agindu baten bidez. Planak, 45 etxebizitza berri eraikitzeke aukera ematen du, horietatik 8 babes ofizialekoak, gaur egun 157 bizilagun dituen herrian.

Planak gaur egungo herrigunea sendotzea proposatzen du eta zabalteketan, Elizalde-Etxondo aldera (ur biltegi zaharraren ondoran, ipar-mendebaldera) eta Landatxipi aldera (ipar-ekialdera) zabalteza.

Etxebizitzak familia bakarrekoak edo bikoak izanen lirateke. Babes Ofizialeko etxebizitzetzi dagokienez, launa etxebizitzako bi bloke aurreikusten dituzte. Jarduera ekonomikorako, nabe tikiak izanen lituzkeen industrigune berri bat ere aurreikusten du planak. Hornidurei dagokienez, dagozkion eremu libreak bai, baina hezkuntzarako edo osasunerako ekipamenduen aurreikuspenik ez da beharrezkotzat jotzen.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeari bada.

erronkarako #prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza, 3. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · OTSAILAK 7
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · OTSAILAK 28
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · OTSAILAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · OTSAILAK 12
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITATZA · OTSAILAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · OTSAILAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 12
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

DONEZTEBE

GIZARTEA → URTARRILAREN 18KO BATZARREAN AUKERATU ZUTEN

Pablo Elizondo da Casino elkarteko lehendakari berria

262 bazkide ditu gaur egun elkarteak

Marga ERDOZAIN

Urtarrilaren 18ko urteko batzarrean kontuak, junta berria eta aurtengo asmoak aurkeztu zituen Casino elkarteak.

Aurreko aktaren irakurketa eta onarpenaren ondotik, bazkideen bajak eta bazkide berrien proposamenak aztertu zituzten. Aipatu behar da 5 bazkide berri izan direla eta ez dela inongo bajarik izan, une honetan 262 bazkide badira. Elkarteak diru kontuen aurkezpena eta onarpena egin zuen eta azpimarratu behar da 2014 eman zirela. Gogoratu behar da lan horiek bigarren pisua eusteko erabili direla, egitura zaharra izanda, ez omen zuen indarrik pisu handiko jarduerak eusteko eta obra hoiekin arazo hori ekidinen da. Horretaz gain, barra txukundu, pintatu eta argiak gaur egungo arautegietara egokitu dituzte.

PABLO ELIZONDO LEHENDAKARI BERRIA

Casino elkarteak batzorde berria ere eratu zuen. Joan den urtetik Mari Jose Iribarren, Juan Telletxea eta Pablo Elizondok segitzen dute. Pablo izanen da lehendakari berria. Hauekin batera Avelino Mitxeo, Xabier Bañares eta Jabiartxo Almandoz sartu dira zuzendaritzan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

San Migel eskolak euskal mitologiako pertsonaiak aukeratu ditu inauteriak ospatzeko

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek laminak, sorginak, aker-beltz, galtzagorriak, tartalo eta beste hainbat pertsonaien mozorroz jantzita urteroko desfileari kolorea eta ikuskizuna emanen diote. Urtero egiten den bezala, goizeko 11etan kurtsoa eta ongi antolatuta aterako dira gure txiki eta gazte-txoak. Doneztebeko karriken barna ibili ondoren Bear-Zana pilotalekura ailegatuko dira eta bertan dantza batzuk eskainiko dituzte. Ondotik, berriz kalejiran eskolara itzuliko dira. Eguerdian bazkari goxo-goxoa dastatuko dute (egun horretan ikasle guzietan aukera dute bertan bazkaltzeko). Bazkaldu ondoren frontoian musikak bazkalondokoa alaituko du, denon gozamenerako.

Hiru kide berri hauek Asier Mutuberría (orain arteko lehendakaria), Isabel Ibarrola eta Lander Erkiziak utzitako ardura hartu dute (bi urte egon baitira elkarteko gidaritzan)

Aurtengo erronkei begira, aipatu behar da bigarren pisuko erabilera handitu nahi dela: ikastaroak, otorduak... eta horretarako lankidetzeta eta elkarlana gainerako herriko taldeekin burutzeko asmoa badela. Azpiegiturari dagokionez, egituraren sendotze lanekin jarraitu nahi da, eraikuntza osoari behin betiko zaharberritzea ziurtatuz.

TXANDALA ETA KIROL-JERTSEA

Errekak kirol ekipazio berria karrikaratu du

TTIPI-TTAPA

Txandala eskuratzeko aukera nahi duen guzirik izanen du: Errekako sekzio desberdinetan parte hartzen duten kirolariek, eta elkarteko bazkideek 30 eurotan erosten ahal dute eta gainerakoek 40 eurotan. Txandala osorik nahi ez duenak aukera du sudadera erosteko: (22 eurotan jokalaria eta bazkideentzat eta 30 euro gainerakoentzat). Interesatuak Errekako kideren batekin harremanetan jarri behar dute edo Rosariori galdetu. Ekipazio honekin Errekak lainoaren umeak jantziko ditu. Gogoratu behar da orain arte gehienbat kamisetak ikusten zirela baina azkeneko urte hauetan korrikalariek, txirridulariek berezko ekipazioa izan dute eta aurtengo San Silbestrean ere esku-larruak eta lepoko bufak ere banatu zirela.

FLASH

EH Bilduk batzar irekia antolatu du

EH Bilduk batzar irekia antolatu du otsailaren 6an, ortziral arratsaldeko 8etan zine-man, maiatzeko hauteskunde begira bere proiektua aurkezteko. Orain arte talde eragileengandik jasotako ekarpenak eta herritarrei luzatuko zaien inkesta ere erakutsiko da. Hauteskunde-programaren nondik norakoak eta zerrendetan zer jende joanen den ere azalduko dute. Batzarrean ondortik berendua izanen da.

Jose txo Ezkurra XXV. Memoria

Erreka elkarteak antolatutako txapelketa aurten buruz burukoa eta lau terdiaren barrenean lehiatuko da eta pilotariak jaiotza-urtearen arabera banatuko dira. Txapelketa martxoaren 1ean hasiko da eta ekainaren azken astean, Doneztebeko San Pedro bestetan, finalak jokatuko dira. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da eta kanporaketa moduan jokatuko da.

Finalista helduak

Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak otsailaren 21ean jokatuko dituzte. Elite mailan Mendinueta eta Imaz, Elizalde eta Eskuderoren kontra eta bigarren mailako seniorretan, Mendy eta Imaz (Aurrea Saiaz), Hernaniko Urkizu eta Lizeagaren kontra.

Zine emanaldia

Otsailaren 8an, igande arratsaldeko 4:30ean *Walle* filma izanen da ikusgai zine-man.

GIZARTEA → MARTXOAREN 26AN

Mus txapelketaren finala Hondarribian

Ikastaroetan izen emateko epea otsailaren 13ra bitarte luzatu da

Jose Luis LEGARRA

Urte hasieran, urtarrilean eta otsailean, aurreko urteetan bezalaxe mus txapelketak antolatuta ditu Arkupeak elkarteak herriz herri. Finala, berriz, Hondarribian jokatu da, Arдора jatetxean, martxoaren 26an.

ATERALDIAK ETA SOINKETA

Martxoan eta apirillean eginen diren ekitaldiei begira izen emateko epeak ere egunotan zabalduko dira. Ho-

nela, martxoaren 10ean Xabierren eginen den ateraldirako izen emateko epea otsailaren 9, 10 eta 11n irekiko da. Martxoaren 19an sagardotegira joateko otsailaren 16, 17 eta 18an eman behar da izena. Apirilaren 9an ohiko soinketa eguna eginen da eta martxoaren 8, 10 eta 11n irekiko da izen ematea. Apirilaren 16an Lacturalera eginen da teraldia (izen emateak martxoaren 2, 3 eta 4an). Apirilaren 23tik 30era, berriz, Bartzelonara bidaiatu eginen da. Izen emateko epea otsailaren 2tik 4ra ireki dira, bulegoko 948 450878 telefonora deituz.

IKASTAROAK

Ikastaroetarako izena emateko epea berez

urtarrilaren 23 itxi zen, baina otsailaren 13ra arte luzatuko da. Hauek eskainiko dira aurreko: Informatika, Aktiba zaitetz, Irrifar batekin esnatu, Argazkigintzara sarriera, Altzariak zaharberitzeko ikastaroa, Lorategiko orokortasunak, Memoria tailerra, Inausketa eta txertaketa, Pintura eta marrazketa tailerra, Udaberriko loreak, Landare sendagarrrien erabilera udazkenean, Yoga, Igeriketa, Aqua Gym eta Gorputzaren luzaketak.

LACTURALEREN HITZALDIAK

Lacturalek hitzaldiak eman ditu Donezteben eta Elizondon, eta emateko gelditzen direnak hauek dira: Beran otsailaren 16an eta Leitza-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bistan da bidaietan ederki pasatzen dutela Arkupeak elkarrekin kideek. Argazkian Luis Elizegi goizuetarra ageri da, jaon den urteko azaroan Argentinara egindakio bidaietan, tangoa dantzatzeko Buenos Aireseko La Bomboneraren atarian.

otsailaren 23an.

Informazio gehiago

11. albiste boletinean

dago.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

Merkealdia



edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

ITUREN

OSPAKIZUNAK → GIRO BIKAINA

62 joaldun plazaratu ziren Inauteri Astelehenean

Larunbateko kontuen egunean bertsolariak eta dantzariak aritu ziren

Arkaitz MINDEGIA

Inauteri Astelehenean Iturengo plazara bildu ziren hiru herrietako joaldunak. 62 izan ziren guzira, hogeita launa Ituren eta Zubietakoak, hamalau Aurtizkoak eta horiekin batera, ttiki batzuk ere atera ziren, mozorroak uxatzera.

Goizetik Iturengo eta Zubietako Herriko Etxeko ganbaretan eta Aurtizko elkartean beraien arropak janzen aritu ziren joaldunak, joareak ongi estutu gerrian, ttuntturroa buruan paratu, isopua eskuetan eta ongi gosalduta zuten.

Mozorroak bere aldrebeskeriak plazan egiten zituzten bitartean, Iturengo Joaldunek, langintza honetan mende erdia bete duen Lazaro Erregerena eta Javier Bereau buru zutela, Latsaga alderajo zuten, Aurtitz eta Zubietakoekin bat egitera. Elkar agurtu ondotik, denek elkar hartu zuten, pausua bateratu eta Iturengo plazara hurbildu ziren.

Iturengo plazara hurbiltzerakoan, nahikoa lan izan zuten joaldunek mozorroak uxatzen. Gisa guzietako jantziak ikusi ziren. Baita jantzi handirik behar ez zutenak ere. Joaldunek hamaketakoa izan zuten Herriko Etxeko Ganbaran eta bertze itzulikka baten ondotik, Astearterako indarrak gordezera joan ziren.

Bitxikeri moduan, as-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Joaldunak, Hartza eta mozorroak, inauterietan huts egin ezin duten hiru osagarri.

telehen arratsean Iturenen emakumeak ibili ziren joareak jotzen eta asteazken arratsaldean, Aurtitzen, gazteek eta emakumeek ireki zu-

ten joaldunekin batera egindako puxka biltzea.

Larunbateko kontuen egunean bertsolariak aritu ziren. Herriko dantzariak ere aritu zi-

ren. Aurtitzen afaria egin zuten larunbatean eta igandean kontuak ordaindu ondotik, soberan gelditutakoekin bazkaldu zuten.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ORBELA
SENDERENBIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com



LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA



ola

SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIJA IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

OSPAKIZUNAK → JOAN DIRA INAUTERIAK

Lau emakume atera dira aurten joaldun

Asteartean 70 joaldun bildu ziren plazan, horietatik 40 herrikoak

Fermin ETXEKOLONEA

Orokorrean ongi joan dira inauteriak, parte-hartze handiarekin nahiz mozorro, nahiz joaldun bezala. Jende artean hainbeste traste eta karroza ibiltzerakoan arrisku puntua izaten da beti, baina dena ongi joan da. Gazteen elkartean 46 lagun bildu ziren.

Batzuk besta egiteko beste batzuk lan egin behar izaten dute eta alde horretatik eskerrak eman behar zaizkie Patxiku Mitxelena buru egin duen sukaldari taldeari, Marijoxe Loiarde, Rakel Telletxea eratsundarra, asteartean Mainer Irazoki doneztebarrera eta Leire Bazterriak laguntzaile zutela. Lo-

rentxo Santesteban erosketak egiten eta eskua botatzen aritu zen, urtero bezala, zuzen demonio. Musikari lanetan Modesto Ordokiren lana aipatu behar, 30 urte baino gehiago baititu Zubietara etortzen eta giro bikaina jartzen. Denen umorea eta pazientzia eskertzekoa da.

Larunbateko afariarekin hasi zen jendea animatzen. Igandean puxka biltzen eta karrozei eta mozorroei azken ukittuak ematen ibili ziren. Astelehenean hiru karroza eta 24 joaldun joan ziren Iturenara, tartean lau emakume: Juli Loiarde eta Ane Antso ama-alabez gain, Maritxu Sanchez eta Mikele Etxekolonea. Julik 48 urte ditu eta ederki egin zuen bi egunetan harat-honata.

Herrirako asteartea da egunik handiena. Eguerdiko tarte horretan ederki eutsi zion eguraldiak eta 70 joal-



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

70 joaldun bildu ziren Zubietako plazan, baita mozorro ikusgarriak ere.

dun ailegatu ziren plazara: 40 herrikoak bertakoak, 18 Iturenngoak eta 12 Aurtizkoak.

Kanpotik ere jende dexente bildu zen ikus-terera eta hainbat kame-

rek bildu zuten ikusizuna.

Asteazkenean kontu eguna izan zen eta jendea kontent gelditu zen. Partikularrek ere dirua ematen dute gazteen-

dako laguntza bezala, baita Herriko Ostatuak eta Udalak ere.

Larunbatean azkenean afaria egin zen, heldu den urtera arte inauteriak despedituz.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
 - Nekazariak eta mendi langileak
 - Nominak eta Aseguro Sozialak
 - Lan-Kontratutarako laguntzak
 - Enpresa berri ezberdinen sortzea
 - Diru-laguntza ezberdinak
 - Kontabilitateak
 - IVA eta IRPF
 - Errenta aitorenak
 - Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
 - Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
- artekari@artekari.com

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ttipi-ttapa
Merkatu ttikia



8€

Tel. 948 635 458
www.ttipi.net

BASABURUA TTIKIA

Elkarrizketa egin diogu Juan Gamio labaindarrari, gaur egun gutxi bezala aritzen baita fruta arbolak kimatzen eta txertatzen. Leku batetik baino gehiago-

tatik deitzen diote lan hauek egiteko, eta, orain sasoi heldu denez, galdemodu batzuk egin dizkiogu jakiteko zer lan klase ibiltzen dituen.

Juan Gamio | Labaingo arbola txertatzailea

«Etxeko sagar zaharrak galdu eta orain berriak paratu ditiat»

Markel LIZASOAIN |

Bueno, Juan, afizio gogorra duk fruta arbolan, eta nondik eta nola hasia haiz, bada?

Lehenego sagar asko bagenituen etxean, eta denborarekin galduz joan dituk, eta orain sagar batzuk etxean jateko ilusioarekin paratu genitian gazte batzuk, eta hortik, batekin eta bestearekin egonez, nere arbolak neurrek zaintzeko asmoarekin, pixkanaka-pixkanaka kimatzen eta txertatzen ikasi diat, eta afizio ikaragarria hartu. Orain astia duten guzietan aritzen nauk baserri inguruko eta holako lanean.

Denbora asko kentzen al ditek landareek?

Astez lantegi batean aritzen nauk, eta horrek ere denbora franko kentzen zerek. Gainera, ardi batzuk badiugu eta belarsoro bastante. Orduan, horieri garbi eusten izaten da beti non aritu. Etxean,

amaren eta anaien artean ongi moldatzen gaituk denetara ailegatzeko. Eta, gero, beti hartzen diat tarteren bat landareekin aritzeko.

Landare batek ze lan du?

Neguan, planta gazteak aldatzen izaten dikanik gogorrena. Gero, helduak diren arbolatan, neguan, garbitasuna, uda aldera plaga eta gaitza gutxigo izateko, zertaz askotan moztu egoten dira azalean gordeak. Gero, kimatzeko tenorea etortzen duk: arbolari itxura eman behar baitzaio lehenbiziko urteetan, hor baitaigo giltza guzia landarea osasuntsu egotea nahi badugu.

Txertatzeko tenorea ere orain da, ezta?

Bai, goiz mugitzen den arbola, lehenbiziko loratzen dena, txertatzen hasi zitekek orain: arana, gerezia, udarea... Sagarrak, geroxeago, martxo aldera. Landa-

ZER DA TXERTATZEA?

«Txertatzea duk landare bati hik nahi duken fruta bariedadea itxekitzea.

Orduan, bi parte zeudek: alde batetik, txertaka (arbol basa), landarea hortik bazkatuko duk, eta horrek eutsiko ziok zutik; bertze aldetik, mentua edo adaxka. Konparazio batera: ehun urtetik gora dituen sagar klase iguala eduki nahi badugu, hari adaxka kendu, eta hori duk mentua, gero ibiliiko duguna txertatzeko basaren gainean».

rea oso ttikia delik, udan azaleko txertoa aisago egiten duk, abuztu aldera..

Jende askok ez zekiker den txertatzea, eta esplikatu al huke?

Txertatzea duk landare



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Konkeneko Juan, sagar paxakak eskuan eta gerezi txertatu bat atzean.

bati hik nahi duken fruta bariedadea itxekitzea. Orduan, bi parte zeudek: alde batetik, txertaka (arbol basa), landarea hortik bazkatuko duk, eta horrek eutsiko ziok zutik; bertze aldetik, mentua edo adaxka. Konparazio batera: ehun urtetik gora dituen sagar klase iguala eduki nahi badugu, hari adaxka kendu, eta ho-

ri duk mentua, gero ibiliiko duguna txertatzeko basaren gainean.

Etxean bakarra aritzen al haiz lan hauetan?

Hasieran, etxerako. Gero, barrideeri eta inguru-koeri laguntzen hasi nituk, eta gero eta gehiago kanpoko jendendako. Uste baino gehiago deitzen baitidate.

Gehiago jakiteko:
646 635524



DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
ΔOVARIVM

Carlos Blasco de Imaz Plaza DONOSTIA
Tel +34 943 44 00 99



URDAZUBIKO INAUTERIAK | Otsailak 13, 15, 16 eta 17



EGITARAUA

OTSAILAK 13, ostirala

Bi herrietako haurrak eskolan mozorrotu eta **arratsaldean** herrira jeitsiko dira.

OTSAILAK 15, igandea

Goizean gazteen **gosaria** izanena da Gaiñara elkartean **Segidan** mozorroak jauntzi eta Dantxarinetatik barna, **bentaz-benta** abiatuko dira eskean ilundu arte. **21:30ean** **pintxoak** eta **musika** denentzat, animatu mozorrotzera!

OTSAILAK 16 eta 17, astelehena eta asteartea

09:30 aldera **herriko haurrak** elkartu eta **etxex-etxe** eskean ariko dira eta bukatzean



herrira jautsiko dira. Gazteak, berriz, **10:00etan** elkartuko dira Karretero ostatuan eta kafea ttanttarekin hartu ondotik, **baserriz-baserri** ibiliko dira eskean trikitixa eta panderetarekin. **21:30ean** **pintxoak** eta **musika** denentzat.



Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

INAUTERI ON BATZUK PASA!!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

ETXELEKUA

ARDI LATXAREN GASNA

7. AK MUNDUAN

SALMENTA ZUZENA EGUNERO

Zugarramurdiako karretera

948 599 169 · Urdazubi

www.etxelekua.com



JOSENEA ZONE AUTO



Urdazubi · Tel. 948 599 090

www.josenea.es

SANTIAGO VILLARES S.L.

Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN

SALMENTA ETA ESPORTAZIOA

LASTOA

LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777

T. (0034) 948 59 91 34

Fax. 948 59 91 56

info@santogvillares.com

www.santogvillares.com

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



MONTXO OSTATYA TABAKO-DENDA

ongi pasa inauteriak!



Plater konbinatuak | Ogitaratekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz

Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantxarinetatik 2 km. tara

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039

DONEZTEBE

Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa
inauteriak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

EDERKI tailerra

CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

OLAZAR
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tfnoa - Faxe:
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE

Ongi pasa inauteriak!

DONEZTEBEKO INAUTERIAK | Otsailak 12, 13 eta 14



EGITARAUA

OTSAILAK 12, ortzeguna

20:00 Trikipoteoa **21:00** Afaria Herriko Ostatuan.

OTSAILAK 13, ortziralra

09:00 Baserrietan eskea. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian berri ere elkartu eta Leitzarako bideko tailerrak bisitatuko dituzte. **14:00** Bazkaria Herriko Ostatuan. Bazkalondan musika Modestorekin. **21:00** Kuadrilen afaria.



OTSAILAK 14, larunbata

16:00-19:45 Orgen desfilea Aparandik aterata. (Orga eta mozorro hoberenak sarituko dituzte) **22:00** Kuadrilen afaria.

ORIGINAL

Kimetz
Belardenda

Ongi pasa inauteriak!!!

Leitzako errep. 3 behea | DONEZTEBE | Tel. 948 451 473
kimetzbelardenda@hotmail.com www.kimetzbelardenda.com

TITI BAR
DONEZTEBE

Ongi pasa Inauteriak!

Ameztiá, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Bittor MENDIBURU | Doneztebeko gaztea

«Inauteriek herri osoa kuadrila bakarrean biltzea lortzen dute»

Guraso denetik inauteriak bizitzeko modua aldatu arren lehen bezain gustoko ditu «kuadrilen artean dauden mugak desegiten direlako».

Betidunik ibili izan da Bittor inauterietan «**eskolatik, gurasoekin eta baita lagunekin ere**». Garai bakoitzari dagokion moduan bizi izan ditu eta orain guraso den aldetik, «**duela urte batzuk baino lasaixeago bizitzen ditu**». Atzean gelditu direla dio «**egun guztietan ateratzen ginen garaiak, gosari, bazkari... base-rietako eskean ibiltzen ginene-koak**». Orain inauterietako larunbata da egutegian gorritz markatua duten



eguna. Azaldu digu azken urteetan euren kuadrila, Basahuntzak, bitan banatuta ibili izan dela inauterietan, «**batetik seme alabak ditugunak eta bestetik seme alabarik ez dutenak**». Baina aurten «**aspaldiko partez, kuadrila guztia elkarrekin aterako gara guraso garenak eta ez garenak**». Mozorro eta orgei dagokienez ere, «**gaztetan zer egiten genituen ikusita, listoa dezente jeitsi dugu**» aipatu digu «**lehenago gauza handiak eginak gara. Adibidez urte batean rodeo bat egin genuen zaldi eta bakilla eta guzti. Eta zezenketa bat ere bai, toretzaile, zezen eta zezen plaza galanta eginda**». Azken urteetan ordea, «**ahalik eta abudoen egiten diren gauzak egiten saiatzen gara, semeendako eta ez dugu hainbesteko lan kargarik hartzen**». Soziedadean elkartu ohi dira inauteriak baino aste batzuk lehenago, «**zer egin erabaki eta lanak banatzeko. Gero fetxak paratu karroza egiteko eta hamabost hogeitatu egun lehenago hasten gara guztia egiten**». Denera 40 bat lagun aterako dira aurten, 25 heldu inguru eta hainbeste jende elkartuta, adostasun batera iristea ez dela beti erraza izaten esan digu «**eskerrak beti izaten dela liderren bat. Bestela batzuk iritzi bat, besteak bestea... ez ginateke adostasun batera iristiko**». Batzuetan beraiek etxean beharrezko guztia josi edo egin izan dute, beste batzuetan «**denok berdina erosten dugu eta utzitakoak ere gustora hartzen dira. Eta etxeko saba-iak ere asko laguntzen du, beti izaten baita probetsua ateratzeko moduko zer-bait**». Basahuntzak kuadrilakoek denek elkarrekin zein moztorro karrikatuko duten jakin nahi baduzue, erraza da erantzuna «**Doneztebera etorri eta ikusiko duzue**».

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura



ongi pasa inauteriak!!

Leitzako bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

IRRINTZI

**LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!**

ONGI PASA INAUTERIAKI!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 826

Merkaopari
www.merkaopari.es

MOZORROTU ZAITEZ!

BERTZELA EZ DA BERDINA IZANEN

DONEZTEBEN GOITZ: 9:00ETAYIK 13:30ETARA

ARRATSALDEZ: 16:30ETAYIK 20:00ETARA

ASTELEHENETIK LARUNBATERA.

Zauden tokian zaudela
sar zaitez mugikorrarekin
www.ttipinet edizioan

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Herriko
ostatua

Plater konbinatuak
Bokadilloak
Razioak
SASOIKO
BARAZKIETAN
ESPEZIALIZATUAK

ONGI PASA INAUTERIAKI!!

Santa Luzia Plaza, 5
DONEZTEBE
T 948 456 373
doneztebe@herrikostatu.com

ELBETEko POSADA
 · Eguneko menua · Plater konbinatuak
 · Plater ttikiak prezio berezian
 · Asteburuetan karta
 · Asteburuko menu berezia
ELBETE · Karrikaundi z/g
 T. 948 581 519
 info@posadaelbete.com ·
 www.posadaelbete.com



onegin Herbodietetika
Ekodenda
 Ongi pasa inauteriak!!

- Nutrizionista: AMAIA MEOKI PLAZA
 - Dieta pertsonalizatuak: gehiegizko pisuarendako, diabetikoendako, kolesterolarendako...
- Bioinpedantzian bidez: grasaren neurketa, giharraren neurketa, uraren erretentzioa...
- Kolesterol eta glukosaren odol analisiak
- Biocuantum analisiak: zirkulazioa, bitamina falta, digestioak...
- Elikadura ekologikoa

Jaime Urrutia, 26 Behea
 31700 ELIZONDO
 948 581 932 oneginelizondo@gmail.com

GOIZALDE
ostatua

MENUAK · KAXULAK
BOKATAK · PINTXOAK

948 581 334 | Jaime Urrutia,8 | ELIZONDO

ONGI PASA INAUTERIAK!!!

TXOKOTO

MENUAK · KAXULAK
BOKATAK · PINTXOAK

948 580 349 | Braulio Iriarte 25 | ELIZONDO

ELIZONDO

ELIZONDOKO INAUTERIAK | Otsailak 12, 13 eta 14



EGITARAUA

OTSAILAK 12, ortzeguna

Oilar Dantza edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek. Urtero bezala, karrikadantza, bazkari eta jostetak izanen dira goizean. **Arratsaldean, oilarren ordua** izanen da.

OTSAILAK 13, ortzirala

09:00 gazteak elkartu eta **puxka biltzeari** hasiera emanen diote.
16:00 haurren desfilea izanen da. Desfilearen **ondotik, txokolatea** eta **dantzaldia** antolatu dituzte haurrendako.
22:00 Jantziloren erretzea plazan.

OTSAILAK 14, larunbata

12:00 mozorro eta **orgen** desfilea eginen da herrian barna.



T. 948 580 898 ELIZONDO auto@biokbat.com www.biokbat.com

PNEUMATIKOAK,
DIREKZIOA LERROKATZEA,
OLIO-ALDAKETA,
FRENOAK...



MICHELIN



KUMHO TYRES



Kleber

Olatz ALDAKO | Elizondoko gaztea

«Haurra nintzela hasi nintzen mozorrotzen eta hutsik egin gabe urtero atera izan naiz»

Barbie itxuran, pailazo edo hippiez... berdin du zein den larunbatean soinean darman jantzia «paperean sartuta disfrutatu» egiten baitu

Memoria martxan jartzeko eskatu eta gogoan dituen lehenbiziko inauteriez galde-tuta «oso txikitan, ikastola garaian» izan zirela erantzun digu Olatzek. Hasierako urte haietan «ijitoz jantzi nintzenekoa dut gogoan eta karro baten gainean eraman gintuztela». Orduan hasi eta ez dio inoiz hutsik egin hitzorduari, «mozorrotzea asko gustatzen zait eta inauterietan horretarako aukera dudanez, disfrutatu egiten dut».

Prestakuntza lanetan hastea «pixka bat kostatzen» zaion arren, eguna bera «gogotsu» bizi ohi duela aipatu digu. Lagun talde baten artean prestatzen dute mozorroa eta orga baten bat ere egin izan dute «urtero ez». Inauteriak baino hilabete lehenago hasten dira lanean eta adostasuneran iristea «batzuetan ez dela hain errega» aitortu arren «nola edo hala lortzen dugu denok gustuko dugun gai bat erabakitzea». Horretarako bapatean bururatzen zaizkien ideiak izaten dituzte oinarritzat, baina baita interneten ikusitakoak ere «beti bilatu nahi izaten dugu gai original bat baina askotan zaila egiten zaigu eta ohikoago den zerbaitera jotzen dugu». Behin gaia aukeraturik, «ilusioz hartzen dut egitekoa eta bai aurreko egunetako lanetan eta baita egunean berean ere gogo aunitz jartzen ditut».

Mozorro zerrenda luzea osatua dute dagoeneko eta guztien artean bakarren bat aukeratzea eskatuta «gehien gustatu eta gogoan dudana Barbie panpinez atera ginenekoa da. Bakoitza Barbie desberdin bat zen, animatzailea, ezkongia, printzesa... eta gutako bat Ken, Barbiren bikoteaz ere jantzi zen. Autoa ere egin genuen, dena arrosez margotuta eta ahalik eta hobekien apainduz. Lan asko egin genuen prestakuntzetan eta primeran pasatu genuen». Mozorroak «gehiene-tan etxeko arropekin» osatzen dituztela azaldu digu, baita telak erosi eta etxean josita ere. Azken ukituak ematean ari dira aurten-goari, baina inauterizale on bezala isilean gorde du sorpresa.

Atzera kontaketa hasia du eta plana ere ongi ikasia «desfilea baino lehen gosaltzeko geldituko gara, eta orduantxe hasiko da gure besta. Desfilea bukatzen denean gehienok ostatuera joaten gara eta han jarraitzen dugu parrandarekin». Eta bukatu? «bakoitzak nahi duenean. Goizeko 7rak aldera arte izanen baita non aukeratua».



Olatz eta lagunak Barbie panpinez mozorrotuta.

ALEMAN ARRASIO VIRGINIA
ABOKATUA

ONGI PASA INAUTERIAN!

LAANTEGIAK PARTIKULARARRAK

Jaime Urrutia 20 - 1
31700 ELIZONDO
Tel eta Faxa: 948 452 570
Mugikorra: 629 920 143
birtxi@hotmail.com

Mañonea Agentzia S.L.

Web: www.mainoneaagentzia.com
KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURDIKO AHOLKULARITZA
Email: asesoria@mainoneaagentzia.com

GENERALI
Aseguruak

MAÑONEA AGENTZIA - ELIZONDO - BAZTAN - NAFARROA

Telefonoak: 948 58 11 32 - 606 89 68 43 / Email: seguros@mainoneaagentzia.com

hiru ... betikoa baina ezberdina
Ongi pasa inauteak
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO
T 948 581 219

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, ensaladak, fritoak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuena, Solagüen ardo beltz ondua eta Solagüen txuria
Infusioak zapore guztietakoak
Eskoziaz eta Irlandar kafeak

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



ongi pasa inauteak!

Luzua

ostatua · jatetxea
948631271 · Itzea Harrika, 2 · BERA

BERAKOUDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

Berako adalak inauteri zoriontsuak opa dizkizue!

ERREKALDE

PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK ONGI PASA INAUTEAKI
BOKATIAK

TFNOA: 948 630 259 BERA

ZELAIETA
tabakodenda
egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta · BERA · 948 631 246

ONGI PASA INAUTERIAK

Jauriena

Instalazio elektrikoak
608 777 926
630 136 863
948 631 217
jauenabera@gmail.com

Instalazio elektrikoak · Mantenimendu industrialia
Etxetresnak · Antenak · Sukaldeko altzariak

ETA ORAIN
· DIGITAL PLUS **DIGITAL+**
· ENERGIA ETA ARGIZTAPENAREN EFIZIENTZIA AZTERKETAK

BERAKO INAUTERIAK | Otsailak 11, 12, 14, 15 eta 16



EGITARAUA

OTSAILAK 11, asteazkena
18:00 Inauterietako kontzertua kultur Etxean.

OTSAILAK 12, ortzeguna
15:45 Ortzegun gizen. Suhiltzaileen par-
ketik Eztegarara pilotalekura. **16:30** A ze
nolako banda parranda Eztegarara pilo-
talekuan.

OTSAILAK 14, larunbata
19:00etan abiatuko dira kaldereroak
Illekuetatik Herriko etxeko plazara eta
ordu erdi lehenago prest egon beharko
da. Ibilbidea: Illekueta-Altzate-Zahar



etxea-Eztegarra-Bidasoa karrika-Herri-
ko etxea izanen da. Euria eginen balu,
ekitaldia Eztegarra pilotalekuan eginen
litzateke.



OTSAILAK 15, igandea
10:00etatik aitzinera herrian barna, Ez-
tegarra pilotalekutik hasita Inude eta
Artzaiak. **18:00** Eztegarra pilotalekutik
Altzatera Inude eta Artzaiak.

OTSAILAK 16, astelehena
Goizean zingar-arraultzea **19:00-20:00**
Afrika Lion taldearen emanaldia Altzateko
karrikan.

ongi pasa inauteriak!!!

Garbi ogi & coffee

KAFETEGIA - OKINDEGIA

Gosariak, merenduak, gofreak, krepak,
txokolate beroa txurroekin, izozkiak, goxokiak...

Iturlandeta, 6 · BERA · 948 625 673

07:30-13:30 / 16:00-20:30
Asteazken arratsaldetan itxita

Itasoa turbitagat

ongi pasa inauteriak!

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 · 620 828 757 · Itzea, 6 · BERA

ERRIBERAKO UZTA ESKUTIK ESKURA

ERRIGORA

Nafarroako oliba olio
eskuratzeke izena eman
arraindegian

www.errigora.eus

Eneritz REKARTE | Berako gaztea

«Etxeko gauzekin ahalik eta mozorro merke eta pertsonalizatuena egiten saiatzen gara»

Inude eta artzaietan «egun guztian, gorputza nekatu arte» ibiltzen den arren, astelehena da bere inauterietako egunik maiteena.

«Berako bestak bezain bertze, hagitx gustukoak ditut inauteriak» erantzun digu Eneritzek heldu diren egunen esperoan ote den galdetuta. Lesakako inauterien ajea gainean duela «**lo pixar bat eginda**», igande goizean hasiko dira beretzat herriko inauteriak «**inude eta artzaietan ateratzen gara eta egun guzia besta giroan pasatzen dugu gorputza nekatu arte**» azaldu digu. Ikastolan lehen hezkuntzan zegoenean hasi zen inude eta artzaietan ateratzen eta «gero ia 16 urte betetzean haundien taldera pasa eta geroztik hor gabiltza». Igandekoa beratarrentzat «**egun hagitx berexia**» dela ere azaldu digu, nahiz eta berak pertsonalki astehelena nahiago duen «**astelehenekoa egun handia izaten dugu. Kuadrilan eta herriko jendearekin egoteko eguna delako eta bertzeen mozorroak ikusi eta gurea ere erakutsi nahi dugulako**». Urtero prestatzen dute mozorro edo orga eta horregatik zerrenda luzea osatua dute dagoeneko «**denetik egin dugu**» erran digu erdi barrezka eta erdi lotsatuta «**dortoka ninja, kalimero, mister/miss potato, jubilatua benidorm-era oporretan...**». Nahiko gauza «**berexiak**» osatzeko ahalegina egiten dute beti eta «**personajeen sartzea ere pila bat gustatzen zaigu**» aipatu digu. Hala, mozorroak erokeria gehiago egiten laguntzen duela ere uste du eta irria atera zaio pasadizoren bat gogoratuta. Eguberriak bukatu bezain pronto hasten dira ideiak botatzen eta «**orokorren ez dugu arazorik izaten adostasun batera ailegatzeko, nahiko konformistak gara eta!**». Mozorrotu beharreko gaia aukeratuta, ez dira dendara joan eta egina erosi zaleak «**etxeko gauzekin egitea gustatzen zaigu, baina beti izaten dugu zerbait erosi beharra makilajea, arroparen bat...** Mozorroa osatzeko azkenean beti gehigarriren baterosi behar delako, baina ahal den moduan ahalik eta gauzarik merkeenak eta pertsonalizatuena egiten saiatzen gara». Aurtengo inauterietarako zer prestatu duten ikusi nahi duenak erraza du, Berako karraketan ibiliko dira harat eta honat. Peluka, jantzi eta osagarri artean ordea ez da agian erraza izanen nor diren asmatzea.



«Besta noiz hasi eta noiz bukatuko den bakoitzaren esku dago inauterietan. Niri egunez izaten den giroa gustatzen zait».



Eneritz eta lagunak duela urte batzuetako inauterietan.

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Cava de Puros

Plaza Urna 1, bajo (Aguerra)
31780 Bera
Tel. 948 631 637
Fax. 948 631 654
estanco3@estanco3.e.telefonica.net

ongi pasa inauteriak!

HAUTIK!!!
gorritzirudi
IMPRESA - KOPISTEBIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

ongi pasa inauteriak!!!

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
T. 948 63 10 27 - F. 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

**INAUTERIETAN LASAI IBILTEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
ASTELEHEN EGUERDIAN**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com

ongi pasa inauteriak!

Oiartzabal
arkitektoak

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA INAUTERIAK



Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASTA INAUTERIAK

629 592 215 • Biurrana auzoa, 1 - LESAKA

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



*ongi pasa
inauteriak*

Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA

LESACA

LESAKAKO INAUTERIAK | Otsailak 11, 12, 15, 16 eta 17



EGITARAUA

OTSAILAK 11, asteazkena
Goizean Irain Eskolan inauterietako jaialdia.

OTSAILAK 12, ortzeguna
Goizez arraultze-arraultze. **Arratsaldean** ikastolan inauterietako jaialdia.

OTSAILAK 15, igandea
Goiz-arratsaldez Goitarrak baserriz-baserri. **17:00ak aldera** Zakozar tti-kiak. **Ondoren** Zakozar haundiak. **Ondoren** dantzaldia plazan.

OTSAILAK 16, astelehena
Goiz-arratsaldez Fraindar eta Goitarrak baserriz-baserri. **Goiz-eguerdian** Orgak. **Arratsaldean** dantzaldia plazan.

OTSAILAK 17, asteartea
Goiz-arratsaldez fraindarrak baserriz-baserri.



JOISA




**AROTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, atea, hesiak, forja artistikoa, ...

**T./F. 948 638 150
M. 646 774 117**

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com

www.talleresjoisa.com



Ladis SATRUSTEGI | Lesakako gaztea

«Hagitz gustura ibiltzen naiz musika jotzen eta besta egiteko denbora dezente ere izaten dut»

Larunbarekin kuadrillarekin afaria eginez eta igande eta astelehenean Musika Bandarekin karrikak alaituz ospatzen ditu herriko inauteriak


«27 urteko Lesakako gazte aktiboa, gauza aunitzetan parte hartzea gustatzen zaiona». Halaxe aurkeztu digu Ladis Satrustegik bere burua. Azken aldian, ordea, denbora ez du soberan. Izan ere, Udalak Gaztetxea egiteko lokala eman zietenetik burubelarri sartuak daude horretan: «**indar guztiak Gaztetxean egin behar diren obretan jartzen ari gara,**



Ladis eskuinean, Bandarekin inauterietan.

ideia aunitz ditugu buruan, eta praktikan jartzeko gogotsu gaude». Halere, Gaztetxeko zereginak alde batera utzita, inauterietarako tartea hartzeko asmoz somatu digu. Beretzako «**urteko bestarik politenetakoak**» direlako eta «**mozorrotzea aunitz gustatzen baitzait**». Ttikitatik mozorrotu izan dela kontatu digu, «**lehenengo eskolako karrozarekin eta gero txarangarekin. Oroitzen ditudan lehenengo inauteriak Irain eskolarekin Mariatziz atera gineneakoak dira**». Larunbarekin hasi eta astelehenarekin bukatzen dira Ladisentzat inauteriak, nahiz eta Fraindarrek asteartera luzatzen duten besta. Ladisek larunbarekin kuadrillarekin afaria egiten du eta igande eta astelehenean Musika Bandarekin ateratzen da: «**egia erran ez dut inoiz bertze deus probatu, hagitz gustura ibiltzen bainaiz musika jotzen. Besta egiteko denbora ere dezente izaten dut, egun horiek horretarako baitaude**». Banda-rekin dabilenean Zakozarren kanta omen da inauterietan «**gehien**» jotzen dutena, baina «**astelehen goiz erdian plazan Las Mañanitas jotzea ere tradizio bihurtu da**». Musika-tresnak astintzea tokatu arren, berdin-berdin mozorrotzen dira Bandako kideak: «**lauzpaborts aste lehenago ideiak botatzen hasten gara, gehiengoak ados egon arte. Egia erran, nahiko erraz hartzen da erabakia. Azken aldian, gai horrekin zerikusia duten kantak jotzen ere saiatu izan gara**». Mozorrotzea gustuko badu ere, «**zaila**» egin zaio urteotan jantzi eta bereziki gogoan duen mozorroren bat aukeratzea: «**hala ere, batzuk aipatzekotan majorettez txarangarekin edo kuadrillarekin Beti Gazteko animatzailez atera gineneakoak erranen nituzke**».

Mozorroa prestatzerakoan, «**normalean lehenbizi etxean begiratzen dugula**» erran digu, «**ea zerbait aprobetxatzen ahal den. Ezin bada, dendarara joaten gara**». Aurtengoa ere erabakia omen dute, nahiz eta ez digun aitortu zein izanen den... Mozorroa bat edo bertze izan, badakigu non aurkituko dugu inauterietan Ladis. Ez baititu saltzeko herriko inauteriak. Lesakako inauterien berezitasunez galdetuta, «**Lesakakoak**» direla erantzun baitigu umoretsu. Horrez gain, «**egun desberdinetan ospatzen ditugula**» azaldu digu eta «**bakoitzak bere xarma eta berezitasuna duela eta... egun horietan jendeak lotsa etxean uzten duela**». Lotsa kontuez ari garela... Ladisek uste du mozorroko lotsa duenari erokeria egiteko «**zerbait lagunduko diola, baina lotsa gehiegirik ez dugunoi...**». Lotsa gehiago edo guttiago, inauteriak gozatzeko dira eta Ladisek ere asmo horixe du otsailaren 14tik 16ra.



ttipi-ttapa

★★★★★★★★

DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK
Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK
Boletoa, pegatinak, lonak, roll up, panelek, poltsak, txapak...

EGUTEGIAK: SAKELEKOKAK, PARETAKOKAK, MAHAI GAINEKOAK

LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.net www.kulturkari.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Erakusketa: **Bereau Etxea** | LESAKA | Naf
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 94863

KOXKONTA
JATETXEA | LESAKA

INAUTERIETAKO MENUA

30€
BEZ
Barne

Urdaiazpiko iberikoa
Itsaski-salpikoa
Iberiko eta Idiazabalez betetako zainzuriak
Onddo hostorea
Zapo txikia panadera patatekin edo
Entrekota Plantxan
Postrea, ardoa, ura eta kafea

Ongi pasa inauteriak!

T. 948 627 519



AMAI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!



K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242



ZUBIMUXU ATERPEA

📍 Herriko plaza 10. 31754 Goizueta
 ☎ 948 51 40 06 📞 663 85 85 02
 @ zubimuxuaterpea@hotmail.com
 📧 zubimuxugoizueta.blogspot.com
 📘 www.facebook.com/ZubimuxuGoizueta




ongi
pasa
inauteriak!



Idoeta, 71 - 1ª • 31745 GOIZUETA
 Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 80
 www.apezetxeanaiak.com
 excavaciones@apezetxeanaiak.com

GOIZUETA

GOIZUETAKO INAUTERIAK Otsailak 15, 16, 17 eta 21



EGITARAUA

OTSAILAK 15, igandea

17:00 Gaztetxoan zahagi dantza. **18:30** D. **21:30** Mozorroen afaria

OTSAILAK 16, astelehena

08:00 Mozorroen irteera baserrietara. **10:00** Plaza eta soziedadea apaintzea, gaia: Brasil. **11:30** Hamaiketakoa **12:00** Desfilea herrian zehar. **13:00** Umeen bazkaria. **14:30** Helduen bazkaria. **On-doren** umeentzako tailerrak Goxalin eta pelikula Gazte-Txokoan. **18:30** Mozorroen etorrera herrira dultzaineroekin **19:00** Plazan dantzaldia **22:00** Mozorroen afaria



OTSAILAK 17, asteartea

09:00 Mozorroen gosaria **10:00** Mozorroak herriko kaleetan zehar **14:00** Mozorroen bazkaria **17:00** Zahagi dantza, Izkiña tabernatik hasita **19:00** Erromeria Gugaz taldearekin **20:00** karrozen desfilea **22:00** mozorroen afaria **23:30** erromeria Gugaz taldearekin plazan **02:00** Disfraz leihaketa Gaztetxean.



OTSAILAK 21, larunbata

12:00 poteoa Igandea txarangarekin **14:00** Mozorroen bazkaria **17:30** aldera poteoa igandea txarangarekin **Gauean** Los Webotes taldea Gaztetxean.



IZKIÑA
jatetxea

gira bero beroa!!!

Pintxoak,
bazkariak eta
afariak



Tel. **948 514 102** · GOIZUETA

Oxeguarda
ostatua



AUPA
GOIZUETAKO
INAUTERIAK!

T. 948 514 019
Nagusia, 34
GOIZUETA

ETXALARKO INAUTERIAK | Otsailak 12, 15, 16 eta 17



EGITARAU

OTSAILAK 12, ortzeguna

Goizean **etxez-etxe** ibiliko dira **neska-mutikoak** Ortzegun Gizen, Ortzegun Gizen, zingar-arraultze bat ez bada bertze eskatuz. **14:30etik aurrera** Landagain eskolako ikasleek beren **antzezlanak** eskainiko dituzte **karrikaz-karrika**. **On-dotik** Guraso Elkarateak eskainitako **berrendua**.

OTSAILAK 15, igandea

Zaldun Inaute egunean **kinto bestak** ospatuko dituzte.

OTSAILAK 16, astelehena

Astelehen Inaute egunean 08:00etan gosaria La Basque jatetxean. **Ondotik** herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk **goiko auzoetan eta** bertzeak **beheko auzoetan** eskean ibiliko dira egun osoan. **Gauean** pintxoak Elutsa ostatuan.

OTSAILAK 17, asteartea

Astearte mozorro egunean, **12:00 al-**



dera herriari itzulia emanen zaio **mozorro eta karrozekin**. **Ondotik** bazkaria Herriko Ostatuan eta aldi berean, jubilatuen bazkaria Larraburuan. **18:00etatik aitzinera** musika eta taloak frontoian Altxataren eskutik.

PLAZAKO
denda

ONGI PASA INAUTERIAK!
ETXALAR • 948 635 026

BEREZITASUNAK:
· Ogi biologikoak
· Espelta
· Etxeko ogiak

GORA HERRIKO INAUTERIAK

Egunero irekia: 06:00 > 13:00
Tel. 661 76 70 27

ELUTSA
OSTATUAN

TABAKOAK

INAUTERI ONAK PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

XIMON
HARATEGIA

INAUTERI ONAK PASA!!

948 514 056
Plaza • GOIZUETA

ETXALARKO UDALAK

INAUTERI ONAK OPA DIZKIZUE
ETXALARTAR ETA BISITARI GUZTIEI

haritzpe
Ettxalardeko jatorria

ONGI PASA INAUTERIAK!

Goikolanda, 8
31760 **ETXALAR**
T. 618 778 328

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 6TIK 8RA

Mozorro besta auzoz auzo hedatuko dute asteburu honetan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ortziralean eta larunbatean auzoz auzo ibiliko dira gazteak eskean.

Larunbat arratsean haur eta gurasoek, gazte eta helduek afaria izanen dute Herriko Ostatuan

TTIPI-TTAPA

Aurten ere egitarau zabalarekin datoz Do-

namariako inauteriak. Gazteen puska biltzearekin hasi eta igande arratsaldeko txokolatada bitarte, hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

ORTZIRALA, OTSAILAK 6

- Herriko gazteak auzoetan barna ibiliko dira eskean mozorrotuta.
- Arratsean afaria egingo dute Herriko Ostatuan.

LARUNBATA, OTSAILAK 7

- Goizean gazteak Herriko Ostatuan elkartuko dira gosaltzeko. Ondoren, auzoz auzo ibiliko dira eskean trikitilarien laguntzaz. Bazkaldu ondotik ere herrian ibiliko dira.
- Arratsaldean haurrak ere karrikara aterako dira.
- 15:30ean haurrak eta gurasoak frontoian elkartuko dira (Artzeko-

ek beren auzoan esperatuko dute) orga apainduetan Artzera joateko.

- 16:00ean Artze auzotik hasi eta herriari itzulia emanen zaio akordeolariaren laguntzaz. Haur nahiz helduak mozorroturik joanen dira.
- 19:00etan Jokoak frontoian: sokatira, zapiaren jokia...
- 20:30ean Haur eta gu-

rasoen afaria herriko ostatuan (joan nahi duenak aitzinetik izena eman beharko du ostatuan, bereiziz haurrak eta gurasoak).

- Beranduxeago gazte eta helduek ere afaria egingo dute herriko ostatuan.

IGANDEA, OTSAILAK 8

- Arratsaldean txokolatada Herriko Ostatuan.

MALERREKA-BERTIZARANA

GIZARTEA → BERTIZARANA, BEINTZA-LABAIEN, DONAMARIA, ITUREN, OIZ ETA URROZEK BAT EGIN DUTE BAZTANGO UDALAREN ERABAKIAREKIN

Partzuergoa desegiteko pisuzko arrazoiak daudela diote sei udalek

Bertze bide batzuk jorratu behar direla uste dute

TTIPI-TTAPA

Azkenengo asteetan Bertizko Partzuergoaren inguruan komunikabideetan zabalduetako irizki eta datuen aitzinean,

Bertizarana, Beintza-Labaien, Donamaria, Ituren, Oiz eta Urrozko Udalek bat egin dute Baztanek hartu duen erabakiarekin, «pisuzko arrazoiak izan baitira Bertizko Partzuergoaren disoluzioaren erabakia hartzeko».

Nahiz eta Baztango Udalak Osoko Bilkurako erabakia bertzeek baino lehenago hartu, eskual-

de mailan eremu publiko zein pribatutik egingdako hausnarketa baten ondoria izan dela ere azpimarratu nahi izan dute: «Eskualde mailan lan egiteko erakunde publiko-privatu bakarra eta eraginkorra edukitzea da helburua eta, horretarako, bertze bide batzuk jorratu beharko ditugu, diru publikoa modu era-

ginkor eta arduratsuan erabiliz».

Sei udaletako ordezkariak igorritako idatziak dioenez, «Bertizko Partzuergoaren estatutuen arabera, nahiz eta udalek diru gehiena jarri, botoen banaketan ez dago gehiengorik. Aurrekontuak defizitarekin onartu izan dira, udal batzuen bozken aurka, defizita

udalak bere gain hartzea planteatuz».

Partzuergoaren gabezi eta arazoei irtenbidea emateko, azken hiru urte hauetan hainbat udal lanean ibili direla ere gogoratu dute eta «Partzuergoaren egoera are maurragoa ez bihurtzeko hartutako erabaki gogorra, baina arduratsua izan dela uste dugu».

EZKURRA



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Lana gogotik egin ondotik, berrehun bat odolki eta beste hainbat jaki prestatu zituzten txerribodan.

GIZARTEA → OHITURA ZAHARRARI EUTSIZ

380 kiloko bi txerri hil dituzte txerribodan

Berrehun bat odolki egin zituzten

Fernando ETXEBERRIA

Urtarrilaren 19an txerriboda egin zen, azken 40 urteotan zerria hiltzeko lanean ari denaren partehartzearekin. 380na kiloko bi zerri hil ziren eta hamar lagun aritu ziren lan ezberdinetan. Beti bezala, emakumeek egin

behar izan zuten lanik gogorrena eta Luisa, Reyes eta Terek odola, gibela eta beste zatiak bildu eta hamaiketako, bazkaria eta afaria prestatzen aritu ziren. Arratsaldeko 4etarako berrehun bat odolki prestatuak zituzten (goiko argazkian ageri dira batzuk). Ohikoa denez, txerribodak egun osoa iraun zuela esan daiteke, afaiondoko muspartidak bukatu bitarte.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ander Gorostiaga Mutuberriaren bataioa

Urtarrilaren 18an bataiatu zuten Ander Gorostiaga Mutuberria, Joseba eta Edurneren semea. Familiako 30 bat lagun bildu ziren elizan, joan den urtean 83 urterekin hil zen Feli birramatxiren urtemuga ere gogoratzen baitzuten. Gurasoak eta Eneko eta Ainhoa aita-amabitxiak bataio-harriaren inguruan zirela bedeinkatu zuen apezak Ander. Gero, denak Barranka jatetxera joan ziren, Anderren aiton-amona diren Jose Luis eta Reyesek prestatutako bazkari bikaina dastatzera.

JAIME LASARTE

Igeltsero izatetik zura lantzeraz

F. ETXEBERRIA

Jaime Lasarte du izena. Igeltsero lanean aritu zen bi erai-kuntza enpresarentzako, bata Ezkurren eta bestea Leitzaan. Kri-siaren eraginez itxi egin behar izan zuten lantegi hau eta bi urte eta erdiz langabezian egon da Jaime. Denbora honetan, as-

palditik zeukan afizio bat landu du eta makilak, bastoiak eta argazkian ageri diren *eskulturak* egin ditu. Horretarako leku egokietara joan behar izaten du, pago, sahas, intsuse eta gaztain egurraren bila. Zenbait bizilagunek erosi dizkiote meritu artistiko handia duten irudiak.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Jaime Lasarte, eskuz landu dituen irudietako batzuekin.

GOIZUETA

GIZARTEA → OTSAILAREN 6AN

Maskulinitate berriei buruzko hitzaldia eskainiko dute ostiralean

Jabi Arakama izanen da hizlari 18:30ean eskolan

18:30ean eskolan. Berdintasuna eta maskulinitate berriak izanen ditu hizpide Jabi Arakama Urtiagak.

Egur loteak eta larre erretzeak eskatzeko epeak

Egur lotea eskatu nahi duenak bizi ibili beharko du, otsailaren 6an, ostiralean bukatzen baita horretarako epea udaletxean.

Mendiko larreak erretzeko eskaerak aur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte taldea indartsu basurde ehizan

Urtarrilaren 23 eta 25eko asteburuan dozena erdi bat basurde bota zituen Beti Gazte taldeak Artzango Harri inguruan.

kezteko epea, berriz, otsailaren 27ra bitarte dago zabalik. Baimen-eskaera datu guztiakin, terrenoaren eskritura osoaren kopia eta planoen kopia aurkeztu beharko dira.

ARANO

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK OTSAILAREN 7AN

Larunbatean egingo dute puska biltzea zomorroek

Izer eta Alabier trikitilariak izango dituzte lagun

ko dira zomorroak puska biltzera. Izer eta Alabier trikitilarien piezak izango dituzte bidean lagun, azken dozena bat urtetan bezalatsu. Zomorroen bazkaria izango da gero eta 17:00etatik aurrera zahagi-dantzaz. Gauean Garikoitz eta Iñaki trikitilariak gero dute afalondoa.



TTIPI-TTAPA

Otsailaren 7an, larunbatean, ospatuko dira Aranoko inauteriak. Goizeko 08:30ean abiatu-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Txapeldun eta azpitxapeldun Lizarran

Lizarrako lau terdiaren barreneko eskuz banakako pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten urtarrilaren 18an. Bi herritar izan ziren finaletan eta gozotik eta gazitik dastatu behar izan zuten. 2000. urtekoen mailan, Umore Onako Antton Apezetxeak 18-7 irabazi zion Oberenako Unai Matari eta 1999. urtekoetan, Errekan ari den Iker Salaberriak 14-18 galdu zuen Lazkaoko Iraitz Zubizarretarekin.

UDALA → URTE BERRIRAKO IRAGARRITAKO EGITASMOAK MARTXAN

Hasi dituzte eskolako parkeko lurra berritzeko lanak

Oinezko eta autoen mesederako neurriak ere hartu dituzte

Juana Mari SAIZAR

Udalak herrian zeuden premiak ikusita zenbait egitasmo iragarri zituen 2015erako eta hasiak dira pixkanaka pausoak ematen. Hartutako lehendabiziko neurriak eskolako parkearekin du zerikusia, zikina, zaharra eta hondatzen hasia zegoen lurra berriagatik aldatzen hasi dira. Kautxo poriketatua izango da erabiliko duten materiala eta bi kapa emango dituzte. Aurreko astean hasi zizuten lanak eta haurrek inauteriengatik eskolan bi jai egun izan zituztela aprobeztatuz, hasiera batean egun horietan guztia egitea zen asmoa. Baina, lurzorua



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Biztanleriaren kontaketeri esker herriko etxeko erabakiak populazioaren beharrei ego

jartzeko eguraldi lehorra behar eta azken aldian eguraldia humeletik joan denez, obrak hasi bai baina orain geldirik daude. Aurreko lurra altxatuta dago eta ea sarri eguraldiak lagundu eta lanak bukatzeko moduan duten.

SEGURTASUN NEURRIAK

Bestetik, herrian jakina da irteera arriskuatsu batzuk badaudela. Adibidez Sastinea tabernatik ateratzen dena zuzenean karretera ateratzen da. Parkeko irteerarekin ere gauza bera gertatzen da. Gainera,

parke aurrekaldean guraso edota elkartera doazenean kotxe asko egoten dira aparkatuta eta horrek arazoa eragingo du, kotxez bertatik pasatzen direnen ikuspegia txikitu, bidea estutu eta askotan irteerak oztopatuta egoten

direlako. Hori dela eta parkeko eta tabernako irteeretan lorentzi batzuk jarri ditu udalak, gizatzen dijoan ikuspegi hobea izatea da asmoa eta kotxeek puntu arriskutsu horietan ez aparkatzea. Sustoren bat pasa den arren, oraindik ezer larririk ez da pasa, baina hobea da aurretik eskuhartzea ondoren damutzea baino. Beraz saiatu gaitezen denok, txofer doazenean mantoago joanaz eta aparkatu behar dutenak irteerak libre utziz.

ETXE BIZITZA BERRIAK

Herrian eraikitzeakoak diren etxeetan jendea apuntatzen ari da eta esan digutenez zerrenda osatzeko azken bost plaza geratzen dira. Horiek osatuz gero eraikitze lanak hasiko lirateke. Norbait zalantzat badago deitu udaletxera edo agertu informazio bila. Mugil!



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Inauterietan karroza ederrak!

Herriko inauteriak pasa berri dira, eta eguraldiak lagundu ez arren herritarrak prestakuntza ederrak egin dituzte karrozak osatzen. Izan zen zer ikusia herrian eta horren adibide honako argazkia, Guraso Elkarteak trainera eta guzti ateratzen herrian. Eta jendea begira gustora! Lan ederra egin zuten aupa zuek!



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Elurak egin digu bisita

Urtarrilaren 22an bazterrak zurituta argitu zuen egunak eta aurten elurak egin digun lehen bisita izan da. Otsail hasiera ere xuria izan dela ikusita, ea argazki xuri gehiago ateratzeko aukera dugun.

LEITZA

OSPAKIZUNAK → JENDETSUAK IZAN DIRA

Ioteriek umore, kolore eta usadioz jantzi dute herria

Jendearen parte-hartzea handia izan da

JM BARRIOLA

Pasa berri dira herriko ioteriak. Ostiraletik hasi zen festa usaina Erleta eskolak antolatzen duen kalejirarekin. Ikasle, irakasle eta gurasoak jantzi koloretsuekin ibili ziren kalejiran musika eskolakoek jotako musikaren erritmora. Larunbatetik aurrera herri guztia sartu zen pesta giroan. Azken urtetan bezala etxeetako balkoi asko oihala eta apaingarri koloretsuekin apaindu zituzten. Bakoitzak bere sormenari bidea emanaz eskean, plazan, egunez, gauean, kalejira ezberdinetan, gaztetxean atsaretutako enparodian... janzkera bereziak nagusitu ziren herrian barrena.

Igandeko gurdi desfilean jendetza bildu zen beste urte batez. Koxkortutako haurrak, masaiak, afrikarrak, kubatarrak, pailazoak, kaxeroiak, txotxongiloak... denetarik ikusi zitekeen. Eta asteartean ilundu orduko, ohiturari eutsiz, atsaura kalejira abiatu zen Atekabeltzetik. Herriko musikariek girotuta, xirimiriak ez zuen jendea izutu eta han eta hemen geldialdiak eginaz herrian barrena ibili ziren kalejiran. Atsaure tradizionalak soinean zeramatzatenak ere asko izan ziren: koloretako txapel eta jantzi, estalitako aurpegi, animalia larru eta adar ikusgarriekin.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

Eskean, gurdi desfilean, atsaura kalejiran... denetan giro ona nagusi.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Ixkibarreko zelaia hondatu dute

Batzuk ioteriak ospatzen zituzten bitartean beste batzuk herritar nahiz bisitari guztientzat txukundutako Ixkibarreko zelaia, kotxeekin hondatu dute. Elurra zegoela aprobetxatuz bertaratu eta soro guztia zuloz eta erretenez ebakia utzi zuten.

FLASH

Guraso Elkarteak antolatuta hitzaldiak Erletan

Erleta eskolako *Denok bat* guraso elkarteak, gizarte zerbitzuen laguntzarekin hitzaldiak antolatu ditu. *Autoestima, autonomia eta gatazka* landuko dituzte Mari Oloriz Landa psikologoarekin otsailaren 10 eta 17an, 15:00etatik 17:00etara Erleta eskolan. Martxoaren 10 eta 17an berriz, *Sexualitatea familia eremuan* izanen dute hizketagai 15:00etik 16:30etara Erleta eskolan hau ere.

Elikadura nahasteei buruzko hitzaldia otsailaren 24an

Otsailaren 24an, arratsaldeko 4etan *Elikadura nahasteen prebentzioa eta hautemate azkarra* hitzaldia eskainiko du Arantza Lorenzo psikologo eta nutrizionistak. Udaletxeko batzar aretoan izanen da hitzaldia eta Amazabal institutuko guraso elkarteak antolatu du saioa gizarte zerbitzuen laguntzarekin.

Sabino Cuadraren hitzaldia Torrean

Arrojado a los leones liburua aurkeztuko du Sabino Cuadra Amairuko diputatuak otsailaren 5ean 19:30ean Torrean. Harrera Elkarteak antolatu du hitzaldia. Liburu horretan, urte luzez militante izandako batek kongresuan izandako bi-zipenak biltzen dira. Pribilegioen, gorteko trikimailuen eta abarren berri ematen du. Euskal Herrian zabalitzen ari den agertoki politiko berriaren testuinguruan, Madrilera abiatu zen ezker abertzaleko diputatu baten testigantza da.

GIZARTEA → OTSAILAREN 7AN ELIZONDON

Oinezen aldeko pilota jaialdia egingen da larunbat honetan

Goñi eta Otxandorena, Olaizola I eta Pascualen kontra ariko dira paxaka erakustaldiaren ondotik

TTIPI-TTAPA

Nafarroa Oinezeko ekitaldien baitan, otsai-

laren 7an, larunbat arratsaldeko 5etan pilota jaialdia izanen da Elizondoko Baztan pilotalekuan. Lehenik paxaka erakustaldia egingen da eta ondotik, eskuz binakako partida: Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorena, Olaizola I eta Pascualen kontra. Sarrerak 16:30etik aitzinera salgai jarriko dituzte frontoian. 6 urte arte doan; 6-12 urte, 3 euro; 12 urtetik goiti, 5 euro.

GIZARTEA → OTSAILAREN 21EAN ARIZKUNENEAN

Fruitu arbolak kimatzeko ikastaroa eskainiko dute

Xabier Akizuren eskutik

TTIPI-TTAPA

Fruitu arbolak kimatzeko ikastaroa eskainiko du Xabier Akizuk Arizkunenean otsailaren 21ean, larunbatarekin, 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara. Izen emateko epea otsailaren 13 artio zabalik izanen da eta 16 euro ordaindu beharko dute in-

teresatuek. Gutienez 10 lagun eta gehienez 20 onartuko dira. Plazak izen-emate ordenaren arabera emanen dira. Matrikulen eta ikasleen mailaren arabera bi talde antolatzen ahalko dira. Eguraldi txarra iragartzen bada egunez aldatuko da. Eguerdian denbora probesteko bakoitzak bere bazkaria oraman beharko du. Ikasle bakoitzak kimatzeko aitzurrak ere eraman beharko ditu.



ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDI

Giro ederrean joan dira Oronozko inauteriak

Urtarrilaren 22, 23 eta 24an ospatu zituzten Oronozko inauteriak, argazkiak erakusten duen bezala, lagunarte ederrean.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Kasinoko bazkideek ere San Anton eguna ospatu zuten

Giro ederrean eta bazkari bikain batekin ospatu zuten La Union Kasinoko bazkideek San Anton eguna, argazkian ageri denez.

FITURREN JASO ZUEN SARIA ILBELTZAREN 19AN

Abentura Turismo Produktu hoberenaren lehiaketa irabazi du Baztan Abentura Park-ek

TTIPI-TTAPA

FITURek antolatzen duen Abentura Turismo Produktu hoberenaren XX. lehiaketaren irabazlea izan da Baztan Abentura Park. Lehiaketa honen helburu nagusiak honako hauek dira: Sektore turistikoaren garapena bultzatu eta kalitate handiko egitasmo turistikoak aditzera eman. Saria, Mattari Alzuarre Gazteluk (BKZ eta Baztan Abentura Parken izenean) hartu zuen urtarrilaren 29an Nafarroako standean.

Epaimahaia honela osatzen da: %30a kontsumitzaileak, %30 turismo arloko profesionalak, %10 komu-

nikabideak eta %30 turismo arloko ordezkariak.

Europar bakarra den Elizondoko parke honetan ekintza ezberdinak egin daitezke: Canopy (Tiroliaren zirkuitu erraldoiak, 120 metroko alturan, eta tirolina txikiak, 20 metroko alturan); penduloaren salto erraldoia (Plataforma 100 metroko alturan dago, 45 metroko saltoa eta 140 metroko penduloa); pendulo txikia (30 metroko alturan), arroi aquapark naturala (txirristak, saltoak, rapelak, erreka jautsi); ferrata bide handia (200 metrotako haitza igotzen da).

BAZTAN

GIZARTEA →

Udalaren Euskara Plana inpugnatu du Nafarroako Gobernuak

Kezka agertu dute Balleko Etxeak eta UEMAK

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Udalaren euskara plana inpugnatu duela eta, Garbine Elizegi alkatea, Maitane Maritoren zinegotzia, Maren Belastegi UEMAKo lehendakaria eta Eneka Maiz UEMAKo Zuzendaritza Batzordeko kidea «kezkatuta» agertu ziren urtarilaren 26an hedabideen aurrean. Beren erranetan «Baztangoa ez da eraso isolatu bat. Euskal Autonomia Erkidegoan Urkijoren eskutik euskararen aurka abiatutako erasoaldia indartzera dator Nafarroako Gobernuak». Nafarroako Gobernuak entzungor egiten die udalerrri euskaldunen beharrei, eta 1986ko Nafarroako Euskararen Legea bera ere traba bilakatu da euskararen arnaguneek behar duten hizkuntza politika garatzeko.

Udal ordezkariak agerraldian aipatu zuten, «larria da Nafarroan euskararekin gertatzen dena. Eta bene-tan kezkatuta gaude. Nafarroako Gobernuak, euskara sustatzeko

neurriak ekiditeko egiten ari den ibilbidean urrats berri bat eman du oraingoan. Udala herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko egiten ari den ahalegina desitxuratu nahi dute. Euskaldunon hizkuntza eskubideak sistematikoki zanpatzen dituzten bitartean, errealitate hori ezkutatu eta erdaldun elebakarrak baztertu eta zokoratzen ari garenaren gezurra zabaldu nahi dute».

Euskarari dagokionez, eta Udalaren kontuetan muturra sartu aurretik, Nafarroako Gobernuak baduela aurreragoko zer eginik uste du: «Gogora ekarri nahi dugu, Gobernuak Baztanen eskaintzen dituen zerbitzu ugari gaztelania hutsean eskaintzen dituela. Eta horrela, ez dituela ez errespetatu ezta aintzat hartu ere egiten herritarren hizkuntza eskubideak».

Osasun zerbitzuei dagokionez, 65 herritarrek eskatu zuten mediku-pediatra euskalduna, baina, egoerak bere horretan segitzen du. Nafarroako Gobernuak ez ditu euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzen, eta hori, arras larria da, udal ordezkariak aipatu zuten. Egoera honetan, Udaletik berretsi nahi



UTZITAKO ARGAZKIA

Maitane Maritoren, Garbiñe Elizegi, Maren Belastegi eta Eneka Maiz, agerraldian.

dute euskara bultzatzeko hartua duten konpromisoa: «Legegintzaldian honetan, UEMAKo kide

eginda, pauso ugari eman ditugu udala euskalduntzeko. Baina oraindik ere baditugu

hutsuneak, eta hutsunehoriek betez, euskarari bidea irekitzen jarraituko dugu».

rekin HAZI, gurekin BIZI, gurekin HE
gurekin HAZI, gurekin BIZI, gurekin HE

BILERA INFORMATIBOA:
(PARKEKO IKASTOLAN)

Otsailak 4 . 17:00etan

MATRIKULAZIO EPEA:
Otsailaren 9tik - 13ra

BAZTAN

ikastola
UDAL ESCOLA PUBLIKOA

Mendinueta z/g. 31700 Elizondo. Baztan.
T. 948 45 24 48 - 948 58 02 56.
baztan@baztangoikastola.com

Baztango Udala

Wastelen Elkartea Nafarroa

www.baztanikastola.eu

GIZARTEA → KONTU KORRONTEA IREKI DUTE

Zahar Etxearendako laguntza eskatu du Batzar Orokorrak

Uholdeek eragindako kalteengatik 300.000 euroko zuloa gelditu da

TTIPI-TTAPA

Baztango Batzar Orokorrak San Anton egun berexia aukeratu zuen uztailaren 4ko uholdean jasandako kalteak arintzeko abian jarri dituzten neurrien berri emateko. Jendearen eskakizunei erantzunez, kontu korrente bat zabaldu dute, jendeak aportazio ekonomikoak egin ditzan. «Baztanen jasandako kalteak handiak izanik, baztandar guztiak ukitzen gaituen Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxea izan da kaltetuenetako bat, horregatik biltzen den dirua Zahar Etxeko patronatuko kontuan sartuko da», aipatu dute agerraldian.

Urte erdia pasa bada ere, gauzak argitu arte itxaron nahi izan dute kontuak argitzeko. Baztango Batzar Orokorrak kideek aipatu zuten, «Zahar Etxean izandako kalteak 464.604,91 eurokoak izan ziren eta asegurutik jasotakoa 165.735 euro izan dira. Beraz, 298.869,91 euroko zuloa gelditu da».

Horregatik, Batzar Orokorrak eskatu dute nahi duen guziari bere aportazioa kontu honetan egin dezala. Biltutakoaren berri ematea ere Batzar Orokorraren esku gelditu da eta behar izanez gero, dirua biltzeko ekitaldi ezberdinak antolatuzko prestatzen ere hasiak dira. Uholdearen urtemuga betetzen denean jaialdi edo kontzerturen bat antolatuko dute, baina zehazteko dago oraindik. Modu berean, Balleko Etxea aseguru etxeekin ere biltzen ari da, aseguruak eguneratzeko.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

San Anton egunean zozketatutako aretxea Iruñera

San Anton eguna ospatu zuten Elizondon. Beti bezala, zopak banatu zituzten plazan, emakume bertsolariak aritu ziren kantari eta gutienez 1867. urtetik Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxearen alde egiten den zozketa ere egin zen Balleko Etxeko balkoian. Amaiurko Gartxon, Eneko eta Maddi Iribarren Aleman anai-arrebeek eta Ekain Arrupea Iribarren lekaorrotarrak atera zituzten zenbakiak. Lehen saria, aretxea, 8.961 zenbakiari egokitu zitzaion. Hain zuzen, San Anton egun berean erosi zion Iruñeko Mikel Pueyok Pello Maia albienteari. Bigarren saria, zerria, 1.141 zenbakiari egokitu zitzaion; hirugarren saria (bi bildots), 2.786 zenbakiari eta laugarren saria, urdaiazpikoa, 3.556 zenbakiari. Azken hau, Elbeteko Julia Istilart-i suertatu zitzaion. Bertze bi sariak atera gabe daude hau idazterakoan.

Natura Etxea
OSASUN ZENTRO NATURALA

Natura Etxea zuekin 1994a ezkereratik Elizondon

**SENDABELARRAK
PRODUKTU NATURALAK
JANARAI EKOLOGIKOA
KOSMETIKA NATURALA
MEDIKU KONSULTA
PISU TERAPIA
JANARIEN INTOLERANTZIA TESTA**

**NEGUKO KANPAINA
%10^{EKO} DESKONTUA
DEFENTSA ERREGINA-JELEA
ETA KATARROENDAKO
JARABETAN**

Santiago 47 | Elizondo | T. 948 580 203

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugaramurdiko arrep. 3 km
URDAZUBI

**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**

Berria erosi taldea

**MENDI
ostatua**

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

**MENDIALDE
Jatetxea**

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua**

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → URTARRILAREN 26AN

Ehun urte bete ditu Almandozko Jauregiko Isabel Plazak

Parrokiko abeslari taldeak hiru kantu eta lore-xorta eta oroigarriak ere jaso zituen

TTIPI-TTAPA

Almandozko Jauregia etxean bizi den Isabel Plazak 100 urte bete zituen urtarrilaren 26an.

Mendea bete duen arren, alai eta kontent bizi da Isabel Jauregian, zerbitzari baten laguntzarekin. Hain zuzen 1909an Baztango Udalak orduko 24.000 pezeta hiru urtez ordainduz erosi zuen Jauregia. Denbora batez fonda izan zuten, gosariak, bazkariak eta beharra izanez gero, logelak ere eskainiz. Ezkontzako bazkariak ematen zituzten eta Almandozko eliza berria inauguratu zenean ere bertan eskaini zuten bazkaria.



ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA Isabel Plaza, familiak eta barrideek inguratua, ehungarren urtebetetzearen ospakizunean.

Ilbeltzaren 25ean, omenaldi berezia jaso zuen Isabel Plazak, familiakoak eta herritarrek inguruan zituela. Parrokiko abeslari taldeak hiru kantu abestu zituen bere ohoretan eta protokoloak agintzen duen bezala, barride batek lore-xorta eta Luis Roldan herriko alkateak plaka



bat eman zioten, baita Isabelen gustuko edariak ere, txanpaina eta kina.

Omenaldia eskertzeko, familiak prestatuta-

ko luntx berezia ere izan zuten. Almandoztarrek zioten bezala, «eskerrik asko eta zorionak Isabel, Almandozko erregina, segi bizitzen».

FLASH

IK informazio gualdia Erratzun

IK Iparretarrak erakundeari buruzko informazio gualdia eginen da otsailaren 6an, ortziral arratseko 7:30etik goiti Erratzuko elkartearen. Lehenik, *Génération autonomistes basques* dokumentala hedatua izanen da (azpitu-tuluak euskaraz). Ondotik, Filipe Bidart eta Panpi Sainte Marie, erakundeko bi militante etorriko dira aurkezpen baten egitera edo publikoaren galderei erantzutera.

Haurrentzako inauterietako tailerra

Kapeluak eta mozo-roak egiten ikasteko haurrentzako inauterietako tailerra emanen du Birbira kolektiboak Arizkunenean, otsailaren 7an, larunbatean 11:00etatik 13:30era. Ikastaro honetan izen emateko 4 euro ordaindu beharko dira. Gutierrez 10 hurrek eman beharko dute izena eta gehienez 20k. Plazak izen-emate ordenaren arabera emanen dira.

Gibelurdinek kontzertuan

Gibelurdinek taldeak kontzertua eskainiko du otsailaren 8an, igande arratsaldeko 7etan Arizkunenean. Baztango Kultur Batzordeak antolatua du emanaldia.

Mus txapelketa azkarra Lurren

Lur aretoan mus tximista txapelketa antolatua dute martxoaren 7rako. 1.000 euroko saria eskuratuko du bikote irabazleak. Izen ematea 696 791059 edo 667 259261 telefonoan egin daiteke.

BORTZ ORDEZKARIETATIK LAU LORTU DITU LANTEGI BATZORDE BERRIAN

LABek irabazi ditu Zahar Etxeko hauteskunde sindikalak

TTIPI-TTAPA

Zahar-Etxean hauteskunde sindikalak egin ziren urtarrilaren 26an eta langileek Lantegi Batzorde berria eta beraz ordezkari-tza berria aukeratu zuten. LAB izan da bozka gehien lortu dituen sindikatua.

Langileen %85ek hartu zuen parte hauteskunderetan. LABek bozkatu duten pertsonen bozken %65a lortu du eta aukeratzen

ziren 5 ordezkarietatik 4. LABek babes hori eskertu nahi izan du eta orain arteko bidetik jarraituko duela adierazi du, «baina noski orain artekoa hobetzeko asmoarekin». Orain arte bezala langileen parte hartzea bultzatzen segituko duela ere jakinarazi du, «ditugun arazoei modu kolektiboan erantzunez orain arte bezala. Hauteskunde emaitzek komitearen lidergoa

eramateko erronka luzatu digute eta ez dugu hutsik eginen. Baina hala eta guztiz ere Zahar-Etxeko arazoak bertan dira eta horiek konpontzea langile guztien konpromisotik etorriko da. Orain arteko bideak erakutsi digu Komiteak bere kabuz bakarrik ez duela arazo guztiak konpontzeko gaitasunik eta denon inplikazioa behar beharrezkoa dela».

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ozpina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak

Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...



www.baztangoudala.eus




www.malerrekakomankomunitatea.com



www.bortziriakzabor.com

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrautza likidoa,
ardoa...)



ECOEMBES

www.ecoembes.com

BAZTAN

GIZARTEA → 2014. URTEARI DAGOKIONA

Kasik 24.000 euroko dirulaguntza jasoko dute kultur taldeek

TTIPI-TTAPA

Kultur erakundeei 2014ko jarduerari dagozkion dirulaguntzak eman ditu Balleko Etxeak. Denetara 23.929,24 euro banatuko ditu. Baztango Dantzariak elkarteak 2.284 euro jasoko ditu, Iruritako Dantzarien elkarteak

1.557 euro, Etnografia Museoen lagunen elkarteak 1.400 euro, Jo ala Jo elkarteak 2.501 euro, Elizondoko Banda Recreok 245 euro, Baztandarren Biltzarrak 5.034 euro, Erratzuko Kultur Elkarteak 2.823 euro, Elizondoko Abesbatzak 2.039 euro,



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Mariano Izetaren liburua berrargitaratu dute

Euskal Nobela Beltzaren Astearen baitan Mariano Izetaren *Dirua galgarri* liburuaren berrargitalpenaren aurkezpena egin zuten Arizkunenea Kultur Etxean urtarilaren 22an. Aurkezpenean izan ziren Gabriela Goñi Izetaren alarguna, Ines eta Juana Mari alabak eta Jose Mari anaia, baita Maitane Maritorea udaleko kultur zinegotzia ere. Liburua 7 eurotan salgai dago Baztango liburutegietan, Izeta erlojudendan eta Iruñeko Karridenda, Elkar eta Katakarak-en.

Baztan Ikastolako Guraso elkarteak 1.492 euro, Ertzuin Guraso Elkarteak 745 euro, Iruri-

tako Guraso Elkarteak 807,24 euro, San Francisco Javier Guraso Elkarteak 1.824 euro,

Baztango Lore emakumeen elkarteak 915 euro eta Legate Barrideen elkarteak 263 euro.

ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOA

San Francisco Javier



Eskola Publikoan
sinesten duzu?

Informazio bilera:
Otsailaren 2an
arratsaldeko 17:00etan

Matrikulatzeko epea:
Otsailaren 9tik 13ra





ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

ZOZKETAK

630. ALEKO IRABAZLEAK

"Bortzirak uraren magaletik euskararen bidean" DVDa
Marisol Almandoz | **ARANTZA**
ARKUPE TXOKOLATE LOTEA
Maite Mariezkurrena | **ELGORRIAGA**
2 LIBURU | Elkar argitaletxea
"Aurpegiko ubeldurak" Amador Txoperena | **IGANTZI**
"Esan, ama, nork egiten ditu umeak?" M^a Jose Bidegain | **ELIZONDO**
3 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea "Hildakoen eremuan"
Jabier Bertiz | **IGANTZI**
Miguel M^a Alzuri | **ARANTZA**
Margari Etxenike | **ZUGARRAMURDI**
TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX DVDa
M^a Jose Iturralde | **ELIZONDO**
2 LIBURU | Erein argitaletxea
"Zakuren gizona" Begoña Itzarbe | **SUNBILLA**
"Haurjalea" Perko Mindegia | **ITUREN**

1

"BORTZIRIAK URAREN
MAGALETIK EUSKARAREN BIDEAN" DVDa
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
www.bortziriak.org



2

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
LESAKAKO SAIOA 2 SARRERA BIKOITZ
www.berzozale.eus



DESKONTUAK

IPINGI

ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

IPARLA kirolak

ELIZONDO
%8, 30€tik gorako gastuan



ARRATE ETETIKA ZENTROA
DONEZTEBE | %10 "Skeyndor
Eternal" krema guztietan



DONEZTEBE
%10eko deskontua oinetakoetan

bortzirudi BERA

%5, 5€tik gora, kopietan,
enkuadernazioetan eta inprentako
zenbait lanetan (ezkontza gonbidapenak,
oroitgarriak...). Argibideak denda



DONEZTEBE | %5 kosmetikan

3

KARTA JOLASA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katxiporreta.com



4

2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
"Afrikako hitzak"
www.ibaizabal.com



ibaizabal

5

2 SARRERA BIKOITZ
Irrisarri Land
www.irrisarriand.com



6

2 LIBURU
Erein argitaletxea
"Olso-gizona" | "Mamud"
www.erein.eus



URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7AN

SOS Alkerdik elgarretaratzea eginen du larunbatean Iruñean

Nafarroako Parlamentuko ordezkariak harrobia bixitatu zuten

Iñigo IMAZ

Alkerdiko harrobien ustiapenak zer errana sortzen segitzen du. Aitzinera begira, SOS Alkerdik elgarretaratzea deitu du otsailaren 7an Iruñean, larunbat arratsaldeko 6etan. Autobusa antolatu da eta ize-na eman behar da sos.alkerdi@gmail.com edo farmazian.

SOS Alkerdik ohar bidez jakinarazi duenez, «Mármoles del Baztán enpresak leherketak lehen bait lehen baimentzeko erakutsi duen in-tsistentziaren aurrean, Nafarroako Gobernuari ingurugiro, hirigintza eta ondareari loturiko legedia betearazteko neurriak hartu ditzala eskatzen jarraitzen dugu Horretarako, proiektu berria tramitatu eta onartzerakoan izandako akatsak bere gain hartu eta egindako arau-hauste oso larriengatik enpresa zigor dezala eskatzen dugu».

Nafarroako Gobernuaren datu ofizialen arabera, 1991 eta 2011 urteen artean Alkerdiko

harrobian banaz bertze 150 kilo lehegai erabili ziren urteko, ustiapen proiektu berriak aurrera segituz gero 24.000 kilo erabiliko lirateke. Harrobiak dituen 50 urteetan ateratako materiala adina aterako litzateke gutxi gora behera datozen 3 urteetan. «Herritarren ongizatean nahiz osasunean eragingo duen kaltea nabaria da», SOS Alkerdiren ustez.

PARLAMENTARIEN BIXITA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeko kideak Alkerdi harrobian izan ziren urtarilaren 21 ean. José Antonio Rapún, Begoña Sanzberro (UPN), Koldo Amezketa (Bildu), Juan Carlos Longás (Nabai) eta Patxi Eulza (Geroa Bai) parlamentariak izan ziren Santiago Villares alkatearekin eta zenbait udal teknikarirekin batera; harrobia ustiatzen duen Mármoles del Baztán enpresaren ordezkariak eta SOS Alkerdi koordinakunde-kide Aitor Olló ere bertan izan ziren.

Bilkura horretan, Udala Mármoles del Baztán enpresak udara arte harrobian egin duen lanaren aurka ager-



UTZITAKO ARGAZKIA

Santo Tomas eguna ospatu zen lehen aldiz abenduaren 21ean, SOS Alkerdiren ekimenez.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Parlamentuko ordezkariak, SOS Alkerdi, udala eta Mármoles Baztán enpresakoekin batera harrobietara egindako bixitan.

tu zen, uste baitu lan horiek kaltegarriak dira Berroberria, Alkerdi eta Zelaieta kobazuloetako ingurune historikoarentzat eta bertako ingurugiroarentzat, eta, halaber, eragozpenak sortzen dizkiela bertako bizilagunei (zarak, kamioien joan-etorriak, hautsa, dardarak...), bertako merkataritzan eta turismoan eraginez, gainera. Denbora horretan Udalak lortu du bertan behera uztea harrobi horretako ustiapen-eredu berri horren leherketak eta enpresari eskatu dio ire-

kiera onetsi zuen jarduera-lizentzia gairiduzten lan guztiak bertan behera uztea.

Gainera, udalak bi zehapen-espeditente zabaldu dizkio enpresari ingurumen eta hirigintzako arloetan arau-hausteak egiteagatik, instalazioaren azalera eta ateratze-bolumena handitu egin baitira, eta, beraz, harrobiko ustiapenaren helburuak aldatu baitira.

Gaur egun, enpresak errekurtsioak jarri ditu espeditente guztien aurka, eta ebazpenaren zain daude. Gainera, Na-

farroako Gobernuaren aginduz Kantabriako Unibertsitateak egindako informe batek dioenez, «Alkerdiko harrobiaren jarduerak ez du inolako arriskurik ondarearen kontserbaziorako, beti ere distantziak eta lehegailuen kargak egokiak baldin badira». Honi erantzunez, zera dio SOS Alkerdik: «Kantabriako Unibertsitatearen emaitzek diotena diotela, leherketen metodoa ez da Zelaietako kobazuloen babesarekin bateragarria, horregatik dago debekatu-ta».

GIZARTEA → SENPEREKO ZONBAIT LAGUNEN LAGUNTZAREKIN

Gerla Haundia sakonki aztertzen duen liburuxka plazaratu du Nabarralde

Mixel Mendiburuk uste du beharrezkoa dela garaia ongi sakontzea

Franck DOLOSOR

“Morts pour la patrie” (Aberriarentzat hilak) kantatzen zuen Gorka Knörrek...hori eta deus guti omen daki hego Euskal Herriko jendeak munduko lehen gerla mundialaz. Xehetasun gehiago jakinarazteko gisan dibulgazio aldizkaria plazaratu du berriki Nabarralde Senpereko zonbait lagun laguntzarekin. Angel Rekalde Nabarraldeko arduradunak dio munduko lehen ger-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

71 senpenter hil zen 1914-18ko Gerla Handian. Bertze aunitz zaurituak izan ziren. Gogoratu behar da orduan 400 familia zituela Senperek, beraz, belaunaldi oso bat hunkitu zuen gerlak. Ondoa, Nabarralderen liburuxkaren azala.

laren eragina haundia, zuzena eta tragikoa izan zela Ipar Euskal Herrian, eta hori ezagutzaraztea ezinbertzekoa dela.

Eneko Bidegain, Xipri Arbelbide, Allande Sokarros, Jean Louis

Davant, Luzien Etxezarreta eta Ixabel Etxeberriaren ekarpenak bildu ditu, bertzeak bertze, Lapurdi 1609 elkarteak. Mixel Mendiburu senpenterak uste du beharrezkoa dela dokumentazio lana egitea

memoria agertzeko. 1914-18 garaian eliza gerlaren alde zegoen arunt, hauen artean Jean Barbier Senpereko orduko erretorea. Haatik, Mendiburuaren arbera beharrezkoa da garaia ongi sakontzea oartzeko herritar frango eta baita ere gerlan parte hartu zuten lagun batzuk gatazkaren kontra zirela, haien artean



Matxin Irabola Senpereko bertsularia. Irabola bertsu sakonak asmatu zituen gerlaren kontra bainan berriki arte ez dira biziki hedatuak izan. Mendiburuk berak TTIPI TTAPA n agertu zituen duela zonbait urte eta geroztik familien zonbait kantu bildumetan irakurri ditu lehen berak. Bertsu hauek gain Xarlex Doyhenard, Jamattitt Harotzarene, Beñat Harisgain eta Ganizon Bergara senpenterren lekukotasunak biltzen ditu Nabarralde-Haria agerkariak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Korrika Senperen

Urepele eta Bilbo lotuko ditu aurten Korrikak martxoaren 19tik 29a arte. Bi urtero bezala gure herritik ere pasako da AEKren aldeko lasterkaldia, martxoaren 21ean larunbatekin hain zuzen, 20:30 aldean. Lekukoa Saratik etorriko zaigu eta Uztaritze alderat eraman beharko da zonbait kilometra herrian barna egin eta.

ALKATEAREN AGIANTZAK

«Karrika nagusian norabide bakarrean ibiltzen ahalko da laster»

F. DOLOSOR

Mundua bildu da berri herriko auzapez berriak urte berri egin dituen agiantzak entzutera. Pierre Marie Nousbaume jakinarazi du laster karrika nagusian norabide baka-

rean ibiltzen ahalko dela eta larunbateko merkaturia indartzeko xedea dutela. Bertzalde, herriko bigitegi bakoitxari zenbakia emanen diote bertze bertze sokorri eta su hiltzaileen lana erretzeko gisan.



SARA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 14 ETA 15EKO ASTEBURUAN

Gazteak eta eskoletako haurrak protagonista izanen dira Ihauterietan

Hiru eskoletako hurrek bazkaria izanen dute igandean Lur Berri gelan

Joana GERENDIAN

Aurten Sarako herriak ihauteriak otsailaren 14 eta 15eko asteburuan ospatuko ditu. Larunbatean herriko gazteak Sarako auzoak animatuko dituzte haien kantu eta dantekin, gauari buruz plazara hurbilduko dira. Gaua ongi bukatzeko, herriko etxeko edantegian Dj bat izanen da edo nahi duenak nahi duen musika pasatzen ahalko du 30 minutuz, lehenagotik izena emanez zerrenda batean.

Igandean hitzordua



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazteek giro ona eta umorea eramanen dute baserrietara larunbatean. Igande arratsean benten itzulia egingen dute.

plazan emana da, haurren dantzak eta Sarako Kantarien sorpresa ikusteko, eta Zanpantzarren auzia ere entzuteko.

Ondotik, 12:30an, hirur eskolek antolatutako bazkaria egingen da Lur Berri gelan.

Iluntze aldean, gazteek karroa berriz hartu-

ko dute benten itzulia egiteko.

Xoko txapelketa

Pleka trinketeak xoko txapelketa bat anto-

latzen du 5 mailaren-tzat: mailaz kanpo, lehen maila, bigarren maila A eta B, hirugarren maila. Izen emaitzak 25 euro balio du eta absolutuki martxoaren 6a baino lehen egin behar dira 05.59.54.22.06 zenbakira deituz.

Kirol emaitzak

Urtarrilaren 18an errubiliariek Saran aritu dira Naroseko ekiparen kontra. Erreserbak irabazi du 12-10 eta lehenak ere 18-6.

Urtarrilaren 24-25eko asteburuan, eskubaloian seniorrek irabazi dute 26-21 Escoubes-eko ekiparen kontra.

Erubian, lehenak 42-0 galdu du Saint Jean de Marsacq-eko ekiparen kontra.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Markel Argarate Eugi, Elbetekoa, abenduaren 28an.

Elaia Daguere, Sarakoa, urtarrilaren 14 ean

Julen Labat, Sarakoa, urtarrilaren 13an.

Jare Olano Garmendia, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.

Maddi Olano Garmendia, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.

Nahia Olano Garmendia, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

M^a Pilar Zugarramurdi Bazterrika, Berakoa, urtarrilaren 16an, 98 urte.

Bixente Etxarte Txoperena, Igantziakoa, urtarrilaren 15ean, 63 urte.

Consuelo Lopez Lopez, Gartzaingoa, urtarrilaren 16an, 62 urte.

Felix Garcia Sacristán, Berakoa, urtarrilaren 16an, 66 urte.

Patricio Peña Etxeto, Berakoa, urtarrilaren 15ean, 82 urte.

Luis Uriz San Vicente, Gartzaingoa, urtarrilaren 15ean, 88 urte.

Jesus Maria Eizagirre Otxandorena, Sunbillakoa, urtarrilaren 18an, 61 urte.

Julia Perez Rodenas, Iuritakoa, urtarrilaren 22an, 87 urte.

Maria Luisa Gainza Elgorriaga, Berakoa, urtarrilaren 20an, 91 urte.

Juanito Etxegia Berroeta, Goizuetakoa, urtarrilaren 24an, 91 urte.

Pakita Alzuguren Iturria, Etxalarkoa, urtarrilaren 25ean, 96 urte.

Maria Teresa Lasarte Maia, Elbetekoa, urtarrilaren 23an, 94 urte.

Mari Carmen Mitxelena Telletxea, Berakoa, urtarrilaren 26an, 69 urte.

Marie Elizalde, Sarakoa, urtarrilaren 17an, 83 urte

Felix Anzizar, Sarakoa, urtarrilaren 20an, 85 urte



Martin INDABURU IRISARRI
Etxalarren hil zen, 2014ko abenduaren 21ean

*Mendi gizon, baserritar, artzai,
Senar, aita, aitatxi.
Hainbat lan eta hainbat neke,
zure indarra eta kemena,
zure begien dizdira eta argia
beti gurekin.*

ZURE FAMILIA



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

PILOTA → MUNDUKO BURUZ BURUKO PALA TXAPELKETAREN FINALA

Xabi Ibargarai erratzuarra nahi eta ezinean ibili zen Fustorekin

Argentinarrak bere bosgarren txapela jantzi zuen urtarrilaren 24an Bilbon, erratzuarraren bigarren finalean

TTIPI-TTAPA

Pablo Fusto argentinarrak buruz buruko Munduko pala txapelketa bosgarren aldiz irabazi du, laugarrena segidan. Iaz bezala, Xabi Ibargarai erratzuarra izan zuen arerio urtarrilaren 24an Bilbon jokatutako finalean eta hiru setak irabazi zituen Buenos Airesekoak (10-3, 10-5, 10-8).

Argentinarra faborito garbia zen arren, Xa-



ARGAZKIA: INNPALA.COM

Xabi Ibargarai erratzuarra bi urtez segidan ailegatu da Munduko buruz buruko pala txapelketaren finalera.

bi Ibargarai teoria argi zeukan finala hasi baino lehen: Fusto mugia-razi beharra zeukan zerbait lortzekotan. Baina gauza bat da erratea eta bertzea egitea. Fusto

hanka geldian jaun eta jabe izan zen lehen bi set edo jokuetan. Erratzuarra urduri xamar ere atera zen eta lehen seta 10-3 galdu zuen. Sakea izan behar zen Ibar-

garaien baliabideetako bat, baina falta bat egin zuen lehen pilotakadarekin eta tanturik ez zuen lortu. Bigarren seta ere bide beretik joan zen eta argentinarra 6-1 ai-

tzindu zen. Orduan hasi zen Ibargarai lasaitzen eta bere lehen errebotea ere sartu zuen. Alferrik, bigarren partziala ere Fustok irabazi baitzuen (10-5).

Dena galdua ikustekoan hasi zen bere jokua egiten erratzuarra. Hirugarren setean 7-4 aitzinetik izan zen, baina suertea ez zuen lagun izan eta ez zuen finala luzatzeko aukerarik izan, 10-8 irabazi baitzuen hirugarren seta eta bere bosgarren txapela Fustok.

INSAUSTIREN BILA

Iruñeko Oscar Insaustik zazpi txapel jantzi zituen 1995 eta 2003 urteen artean eta marka hori gaindiezina ziru- dien. Fustok borts txapel baditu gaurogo eta gaur egun ez dirudi inork itzal egiten ahal dionik.

PILOTA → ERREMONTEA


Julen San Migueli ez dio kontratua berritu enpresak

Doneztebarraren portaerarekin ez zegoen konforme Oriamendi

TTIPI-TTAPA

Julen San Miguel doneztebarrari kontratua ez berritzea erabaki du

Oriamendi 2010 enpresak, ohar labur baten bidez jakinarazi duenez. Kontratua abenduaren 31n akitu zitzaion doneztebarrari. Enpresak dioenez, San Miguelek zenbaitetan kantxan erakusten duen jarrera- rengatik hartu du erabakia, «ez gaude konforme portaerarekin eta



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

San Miguelen portaera zenbaitetan ez dela egokia izan uste du Oriamendi 2010 enpresak.

horrek beregan konfiantza galtzea eragin du».

Erremontearen munduak bizi duen garai zailaz jakitun da Oriamendi 2010 enpresa, «baina aurrera begira seriotasunez segitu nahi du-

gu, pilotazaleek joku ikusgarri honetaz gozatu eta modu honetan, modalitate honek urte askoz segi dezan».

Enpresaren erabakia harridura sortu du. Gaur egungo atzelari onena izateaz gain, bu-

ruz buruko txapeladuna eta binakako azpitxapeladuna da Julen San Miguel. Hala ere, Master txapelketatik kanpo utzi zuen enpresak, kontratua ez berritzeko adierazitako arrazoibere- retsuak emanez.

PILOTA → 28 PILOTARI ARITU DIRA ESKUZ

Txarutaren banakakoa jokatu dute lehen aldiz

Ilbeltzaren 18an jokatu zituzten hiru mailetako finalak Elizondon

TTIPI-TTAPA

Eguberrietan hutsune bat zegoela ikusita buruz buruko pilota txapelketa antolatu du lehen aldiz Txaruta Pilota Elkarteak, taldeko pilotarientzat bakarrik zuzendua. Hiru mailatan aritu dira eta urtarri-

ren 18an jokatu zituzten finalak.

Umeen kategorian zazpi pilotari aritu dira eta bakoitzak 12 partida jokatu ditu ligaxkan (bi itzuli egin baitituzte maila honetan, finalerdiak eta finala kontuan hartu gabe. Ilbeltzaren 18ko finalean, Elizondoko Aimar Obregozok 18 eta 10 irabazi zion Zigako Oier Prim-i.

Kimuak kategorian hameka pilotarik hartu dute parte eta denek den aurka jokatu dute,



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitian parte hartzaile gehienak irakasleekin eta beheitan, hiru txapelkunak.

55 partida denera. Finalean, Nerea Salaburu leharoztarrak 18 eta 16 irabazi zion Irurritako Arturo Iturrilateri.

Haurren kategorian hamar pilotari aritu dira eta denera 38 partida. Finalean, Mikel Ariztia amaiurtarrak 18 eta 13 irabazi zion Ibai Ballarena elizondarrari.

Txaruta pilota elkarrekin antolatutako XXV. Udaberriko txapelketa ere berehala hasiko da. Ilbeltzaren 25ean akituzen izen emateko epea.



PILOTA → MARTXOAN JOKATUKO DITUZTE FINALAK

94 pilotari hasi dira Bortzirietako buruz burukoan

Bederatzi kategoriatan banatuak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako hamalagarren pilotari txapelketa urtarriaren 21ean hasi da. Hain zuzen, bederatzi kategoriatan banatu dituzte pilotariak eta Bor-

tzirietakoak ez ezik, Oiartzun, Iparralde, Irún eta Baztan aldekoak ere ari dira lau terdiaren barranean asteazkenetan Beran eta Etxalarren, ortzegunetan Arantzán, ortziraletan Beran eta larunbatetan Lesakan. Denera 94 pilotari ari dira.

Ttikiak, Umeak B, Umeak A, Kimuak A,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Lesakan jokatu zituzten finalak.

Haurrak eta Kadete B mailakoak ligaxka moduan jokatzeko ari dira eta Kadete A eta 22 urtez beheitikoek kanporaketak dituzte, galtzen

duena kanpora. Finalak martxoan jokatzen diren tentzioa du Bortzirietako pilotariak, baina oraindik ez dago data eta lekua erabakituta.

SOKATIRA

Beti Gazte da eskualdeko ordezkaria Euskadiko txapelketan

TTIPI-TTAPA

Lesakako Beti Gazteko sokatira taldea izan da eskualdeko ordezkari bakarra Euskadiko 8x8 goma gaineko sokatira txapelketan. Lesakarrak 600 kiloko kategorian (otsailaren 14an Bilbon eta 21ean Erandion) eta 560 kiloko kategorian (saio bakarra martxoaren 7an Ezpeletan) lehiatuko dira. Aurten Amaiurrek ez du talderik aurkeztu.

otsailak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ikastaroak	Bertsoak	Lehiaketak
		
<p>ELIZONDO 2015.01.21</p> <p>Frutalak kimatzeko ikastaroa antolatatu dute</p> <p>Otsailaren 13an bukatuko da ikastaro honetan izena emateko epea. Xabier Akizuk emanen du eta plazak izen-emate ordenaren arabera emanen dira.</p>	<p>NAFARROA 2015.02.07</p> <p>Larunbatean abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa</p> <p>Iruñeko Katakrakek hartuko du lehen final-aurrekoa eta igandean Irurtzango Kultur Etxeak bigarrena. Martxoaren 28ra bitarte bertsozaileek izanen dute non gozatua.</p>	<p>BERA 2015.04.13</p> <p>Euskarazko komiki lehiaketa antolatatu dute</p> <p>Euskarazko komikigintza sustatzeko, komiki lehiaketa antolatatu dute Beran. Euskara hutsean izan beharko dute eta apirilaren 13ra arte aurkez daitezke lanak.</p>

Otsailaren 8an Kultur Etxean 18:00etan.

Ipuin-kontalariak
BERA

4-7 urteko haurrentzat

Otsailaren 20an Liburutegian 18:00etan.

Dantzak

ELIZONDO

Baileak

Otsailaren 22an Baztango dantzarien eskutik plazan (12:45).

Bertsoak

NAFARROA

Bertsolari Txapelketako final laurdenak

Otsailaren 7an Iruñeko Katakraken (17:30).

Otsailaren 8an Irurtzango Kultur Etxean (17:30).

Otsailaren 15ean Zubiriko Gautxori jatetxean (17:30).

Otsailaren 21ean Lizarrako Gazteriaren Etxean (17:30).

Otsailaren 22an Lakuntzako Kultur Etxean (17:30).

Ospakizunak

ARANTZA

Mozorro Zuriak

Otsailaren 5etik 7ra.

IGANTZI

Etxez-etxeko eskea

Otsailaren 6 eta 7an.

DONAMARIA

Inauteriak

Otsailaren 6tik 8ra.

ARANO

Inauteriak

Otsailaren 7an.

DONEZTEBE

Karroza ikusgarriak

Otsailaren 12tik 14ra.

LESAKA

Zakozarren bisita

Otsailaren 11n, 12an eta 15etik 16ra.

Hitzaldiak

ALKAIAGA

Ate irekien eguna
Bidazin

Otsailaren 6an 18:00etan eta 19:00etan.

GOIZUETA

Maskulinitate berriez

Otsailaren 6an eskolan, 18:30ean.

IGANTZI

Helduentzako
hezkuntzari buruz

Otsailaren 12an udal-etxean, 19:00etan.

LEITZA

Sabino Cuadrak liburua aurkeztuko du

Otsailaren 5ean 19:30ean Torrean.

Seme-alaben autoestima indartzeko

Otsailaren 10 eta 17an Autoestima, autonomia eta gatazkak 15:00etan eskolan.

BERA

Bakea eta bizikidetzaz

Otsailaren 19an Iragana: Egia, justizia eta erreparazioa 19:00etan Beralandetan.

Kontzertuak

ELIZONDO

Gibelurdinek taldea

Otsailaren 8an Arizkunenean 19:00etan.

BERA

Musika Eskolako inauterietako saioa

Otsailaren 11n Kultur Etxean 18:00etan.

Ikastaroak

ELIZONDO

Haurrentzako inauterietako tailerra

Otsailaren 7an Arizkunenean.

Frutalak kimatzeko

Otsailaren 21ean

Arizkunenean. Izena otsailaren 13ra arte.

Ekonomia mintegia

Otsailaren 21ean, 28an eta martxoaren 7an Arizkunenean.

Izen-ematea urrikik: hazitikhozie@gmail.com.

ETXALAR

Doako maskara tailerra

Otsailaren 3an eta 10ean haurrentzako.

Antzerkiak

IRURITA

Helduentzako antzerkia

Otsailaren 22an Haz-

parneko anderea Gizarate Bilgunean (19:00).

Dokumentalak

ERRATZU

IK Iparretarrak erakundeari buruz

Otsailaren 6an 20:00etan Elkartean. Ondotik solasaldia.

DONEZTEBE

Zinema

Otsailaren 8an *Walle* filma zinematan (16:30).

LESAKA

'Benan. Mendia arnas'

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Mozorro bestak ez du etenik!

Asteburu honetan Arano, Arantza, Igantzi eta Donamariak hartuko dute inauterien lekukoa eta ondokoan, data ofizialetan izaten diren herrien txanda etorriko da. Han eta hemen puxka biltzeak izanen dira, karrozak ikusgai... Eta inauterietako protagonista nagusiak ere karrketan barna ikusiko ditugu: zakoza-rrak, inude eta artzainak, damak, zahagiak...



BERA

Inude eta artzainak

Otsailaren 12an eta 14tik 16ra.

ELIZONDO

Orakunde, desfileak...

Otsailaren 12tik 14ra.

ETXALAR

Eskea eta karrozak

Otsailaren 12an eta 15etik 17ra.

URDAZUBI

Etkez-etzeko eskea

Otsailaren 13an eta 15etik 17ra.

GOIZUETA

Zahagi dantza

Otsailaren 15etik 17ra eta 21ean.

SARA

Inauteriak

Otsailaren 14an eta 15ean.

ANIZ

Orakunde eta haurren inauteriak

Otsailaren 14an eta 17an.

Lehiaketak

BERA

Komiki lehiaketa

Apirilaren 13ra arte aurkez daitezke lanak.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Otsailaren 8an Elizondotik Alkozera 06:00etan abiatuta.

ETXALAR

Zapingorriren irteerak


Otsailaren 8an Alkurruntzera. 08:00etan plazatik abiatuta. Otsailaren 15ean Gorospilera. 08:00etan plazatik abiatuta.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Liburua
MOSKUKO URREA
Kultur eta gizarte mugimenduen estanda truen, 1983-1993
JUANMA SARASOLA MUNDIA. EKAINA
Moskuko urrea
JUANMA SARASOLA
Autoedizioa, 2014

Irungo kultur eta gizarte mugimenduen bilduma osatu idazleak *Moskuko Urrea* liburuan. Musika arloa da liburuan nagusi, baina bertze eremuetan ere barneratu da idazlea: Angula irrati libre, antzerkigintza, bertsogintza, literatura, gazte asanbleak eta okupazioak, gazte eta ikasle mugimendua, feminismoa, gay eta lesbianen mugimendua, ekologismoa, kontzertu argazkigintza, diskodenda alternatiboak eta diskoe-txe autogestionatuak, tabernarien ikuspuntuak, antimilitarismoa, euskalgintza... Esparru aunitz eta anitzak, 1983-1993 urte arteko saltsa hura biltzeko, eta hark Irungo gizarteari nahiz Euskal Herrikoari egindako ekarpena begirada kritikoz aztertzeko, beti ere elkarrizketatuen ahotsetan. 50 bat lagunuen testigantzak jaso ditu Sarasolak. 35 bat elkarrizketa luzeren eta hamabortz bat laburragoren bitartez, Euskal Herri osoa astindu eta zipriztindu zuen sumendi haren laba gehiegi gogortu eta trinkotu baino lehen Irungo kontuen bilduma egin nahi izan du.



Musika
Txo, Mikmak Txikia
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
Katxiporreta, 2014


Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen azken ikuskizuna da *Txo, Mikmak Txikia* eta horrekin batera kaleratu dute 19 abestiz eta bertze hainbertze ipuintxo osatua dagoen CD hau. Hauek dira abestien izenburuak: *Hondartxo eguna, Plastikero, Telmo deun, Arotzatza, Euskal rock and roll, Albaola, Zuhaitzetan ternuara, Egurrezko ametsa, Gu gara mikmak, Gure esku dago, Mina, Ni naiz kapitaina, Iritsi da... Txapas!!!, Erraldoi txikia, Amets egiteko lehoak, Trikitixa, Mikmak txikia, Txistuka eta I love you 'maite zaitut!'*. Ikuskizunaren mamia, berriz, hau da: Mikmak indiarra da Txo, itsasoaren bertzaldetik etorria. Berarekin eta aitona Rokerekin plana egin dute hiru pailazoek: mundua aldatzeko batu dira, izan ere, Roke arotza da eta egurrezko ametsak egiten ditu esna. Plastikozko zabortegei bihurtzen ari da itsasoa, eta balea bat gaixorik iritsi da hondartzara. Albaola ontzian baleontzi berria eraikiko dute, eta enbata guztien gaintetik, txiri-buelta emanen diote munduari.



Internet
Euskal Herriko gizarte eta ekonomiari buruz
BEHA.EUS

Beha Euskal Herria Gaindegiaeren agerkari digitala da. Euskal Herriari buruzko informazioa, gogoeta eta baliabideak bildu eta eskaintzeko gunea izan nahi du, ondorengo esparruetan batez ere: gizartea, ekonomia eta lurraldetasuna. Beha-ren azken helburua Euskal Herria herri gisa garatzeko ezagutza bildu eta sustatzea da: alegia, herria ezagutu, herria izateko. Gune honek Euskal Herriaren aktualitateari nahiz mundu mailakoari herri ikuspegiz begiratuko dio. Batetik, Gaindegiak Euskal Herriaren garapenerako interesgarritzat jotzen dituen albisteak bilduko ditu, eta, bertzetik, eduki propioak ere landuko ditu: elkarrizketa, erreportaje eta gogoetak. Bertzeak bertze, honelakoak aurkituko dituzu: eduki espezializatuak ekonomia eta gizartean, iritzi eta gogoetak gaurko eta biharko Euskal Herriaz, ikerketa eta txostenak eta hauen analisisa eta tokiko garapenera buruzko informazioa, egiturazko gaien informazioa eta europa nahiz mundu mailako albisteak Euskal Herriari eragiten diotenak.

Nire aukera



Egoitz ZUBIRI
Goizuetako gaztea

«Zahagi-dantza eginaz garai bateko ikazkinen istorioa biziarazten dugu»

Goizuetar gehienek pare herriari oso lotua dago Egoitz eta «bertan bizitzeko aukera izatea» du amets. Kirola, mendia eta ehiza ditu afizio «basurde eta usotan ibiltzen naiz, mendi lasterketetan eta baita bizikletan ere» azaldu digu. Ez da harrizkoa beraz, Mandoegi mendia izatea beretzat herriko txokorik politena «orduak eta orduak bertan pasata ez naiz aspertzen hango bistetaz». Parrandazale fama irabazita duela ere onartu digu baina «lagunarteko giroa da gehien gustatzen» zaiona eta horregatik «juerga berexia ez bada otordu eta sobremesa eder bat nahiago» omen ditu. Inauterizalea ere bada eta inguruko herrietara bisita egin arren, «herrikoak nahiago, denok elkarrekin ibiltzen garelako». Astelehena da beretzat egunik berexiena «mozorroak goizetik hasi eta baserriz baseri zatoa ondoan hartuta, dantza batzuk eginaz ibiltzen gara». Eta gehien gustatzen zaion ekitaldia zahagi-dantza dela argi esan digu «dantza eginaz garai bateko ikazkinen istorioa biziarazten dugulako».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONoz-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.


DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomiko. ☎646 774177.

ORONoz-MUGAIRI. Etxebizitza salgai. ☎626 463576.

DONEZTEBE. Bilogelako pisua salgai, egoera onean. 15 m²ko trastelekua. 110.000 euro. ☎630 160353.



BERA. Alzate karrikan pisua salgai, zaharberritzeko. ☎948 630446 / 635 729858.

LESAKA. Herrigunean

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo www.ttipi.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ **GERO 10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

dagoen 2 logelako pisu dotorea salgai. Sartzeko prest. Mobleztatua. Sukaldea eta egongela bateratua beheko suarekin. Berogailua gela guztientan. Balkoi eguzkitsuarekin. Prezio ona, negoziagarria. ☎686 937420.



ALKAIAGA. Baserria salgai. Lurreko plakak berriak ditu, gero banaketa bakoitzaren gustura. Eguzkitsua eta bistak herrira begira. ☎617 793462.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxe bat errentan emateko. He-

rriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688842054.



DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.



LESAKA. Pisua errentan emateko Ote karrikan. Ganbara, bajera, beheko sua eta sukalde ekipatua. ☎661 262531.

BERA. Alzaten pisu mobleztatua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, balkoi ederra eta berogailuarekin. ☎686 990087 / 948 630217.

ALMUÑECARren, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko maiatzean (hilabete osoan). Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokitu. ☎658 943702.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

ELIZONDO edo inguruan bikote gazte batek

logela 1 edo 2 dituen pisu bat errentan hartuko luke. ☎628 073021.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eltzetako plazan lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

BERA. Legia karrikan 50 m²ko garajea errentan emateko. Eguzkitsua. ☎686 990087 / 948 630217.

LURRAK/ORUBEAK

errentan emateko

ELIZONDO. 140 m²ko baratzea errentan emateko. Prestatua eta urarekin. Bertze lur eremu bat ere badut baratzea egiteko, Elizondotik 4 kilometro. ☎948 580724.

ZERBITZUAK

denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ZERBITZUAK

klase partikularrak

DONEZTEBE. Esperientzia haundiko gitar-jole senegaldarrak gitar elektriko eta akustiko klaseak ematen ditu Donzteben. Horrez gain,

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (=)

Zerri gizena
1,018 € kilo. (-0,005)

Zerramak:
0,390 € Kg/bizirik. (-0,005)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16

1.koa 4,96

2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,26

1.koa 4,00

2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 120,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,00/6,60

8-10 kilokoak: 5,70/5,90

frantses mintza praktika klaseak ematen ditu. ☎686 447865/ 631 048131.

LANA
eskariak

Doneztebeko emakume euskaldun batek etxeko lanetan, haur edo adinduak zaintzen lan eginen luke. ☎673 372938.

ARANTZA. Neska bat etxeko lanetan, zerbitzari, sukaldari laguntzaile, ume eta adinekoak zaintzen ariko litzateke. ☎606 304610.

Doneztebeko neska euskaldun bat dendetan dependienta, adineko pertsonak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo administrari bezala lanean ari izateko prest Malerreka - Baztan aldean. Kotxe propioarekin. ☎649 901395.

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK, LEITZALDEA. Interna bezala emakume esperientziaduna eta erreferentzietekin pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak egiten edo haurrak zaintzen ariko litzateke. ☎606 330200.

SUNBILLA. Euskaraz eta frantsesez hitz egiten duen emakumea lan bila dabil. Saltzaille, administraritzia eta zerbitzari lanetan esperientzia duena. ☎687 832844.

ESKUALDEA. Haur eta helduak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakumea prest dago. ☎602 473794.

LANA
eskaintzak

Etetik lan egiteko jendea behar da. Oso interesgarria. Jubilatuta eta pentsiodunentzako ere, beraien ekonomia hobetzeko. ☎699 382673.

URDAZUBI. Montxo ostatuan frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar da. ☎948 599039.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar da. ☎607 827309.

ANIMALIAK
oparitzeko

Bi arratoi zakur oparitzeko. ☎690 959909.

ANIMALIAK
salgai

Border Collie arrazako zakurkumeak sal-

gai. Atta eta ama langile finak. ☎661 767027.

Bi asto eder salgai, ama kumearekin eta ernari. Prezio negoziagarria. ☎690 181644.

DENETARIK
salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritzia. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



Lanpara salgai. ☎660 870536.




Monturako aukia salgai. ☎660 870536.



100 litroko tankea salgai. ☎948 453087.

Bikoteentzako gela salgai, estreinatu gabea. 1,50 mko ohea, koltxoiarekin, 2 mesanotxe, armairua eta komoda ispiluaekin. Egoera ezin hobean. ☎635 875730.



Ile naturala duen peluka salgai, gaztaina kolorekoa eta sorbaldarainokoa. Sare berezia du, ona da eta onkologiarako egokia. ☎609 083342.

Gasoliozko galdara eta 1.000 litroko **depositoa** salgai. ☎948 581127 / 679 615487.

DENETARIK
galdu-aurkituak

GOIZUETA. Argazki kamara baten batera agertu da plazan. ☎948 514006.



Arantzako arau Subsidiarioen aldaketa egituratzailea

Hasierako onespina

Arantzako Udalak, 2014ko abenduaren 4an egindako osoko bilkuran, aho batez, ondoko akordioa hartu zuen:

1.-Hasiera batez onestea Arantzako Udalak sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzailea (18. eta 19. artikulua) aldatzen dira, lur ez urbanizagarrien eraikitzen diren eraikitzen baldintza bolumentriko, estetiko eta funtzionaletan eragina izanik, hori, Lurraldearen Antolamenduari eta Hiri-gintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan, 79.3 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.

2.-Espedientea hilabete epean jendaurrean edukitzea, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta Foru Komunitateko egunkaritan jarrita. Jendaurreko epean interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkezten ahalko dituzte.

Arantza, 2015.01.22
Alkatea, Ander Almandoz Indacochea

NEGUKO ESKAINTZA BEREZIAK

KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com | www.ttipi.eus

2.500 ↔ **143€**
FLYER A5

5.000 ↔ **165€**
FLYER A5

KOLORETAN | DISEINUA BARNEN | INPRENTA BARNEN | GARRAIOA BARNEN | BEZA BARNEN | EPEA: 10 LAN EGUN

FLYER A5

Personalizatua

↑ 210 mm

← 148 mm

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.eus bitartez



EKHI EZKURRA SANZEK 7 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak gure gizontxoari. Leitzako familiaren partetik, muxu bat eta ondo pasa eguna.



Zorionak attona eta amonak Goizuetako **MANUEL ETXEBERRIA** eta **MARITXO ELIZALDEK** 63 urte ezkondurik eta beti bezain zoriontsu. Segi hortan! Muxu haundi bana familia guziaren partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZ 9 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik.



Lesakako **MIREN YANCI CHARLES** 2 urte beteko ditu otsailaren 17an. Aunitz urtez aita, ama, amaxi, Iruñeko eta Nigeriako familiaren partetik. Muxu, muxu, muxu.



Burlatako **LANDER ZABALETA MERINOK** urtarilaren 19an 2 urte bete ditu. Zorionak eta larunbatean ospatuko dugu. Leitzako zure familia.




ANE JAUREGI GARTXITORENA sunbildarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 6an. Zorionak Doneztebeko familiaren partetik eta prestatu bizkotxo eta txokolatea.



NAHIAK otsailaren 1ean urtea bete du. Aunitz urtez panpoxa.



Goizuetako **EILA LARRALDE AROTZENAK** urtarilaren 31n bi urte bete ditu. Zorionak politta eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Berako **JON PAGOLAK** 11 urte bete ditu urtarilaren 27an eta Arantzako bere lehengusina **NAROA MUTUBERRIAK** 3 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak biei familia guziaren partetik eta muxu haundi bana. Ongi pasa eguna! Aupa Real! Jeje!



GIXANE TELLETXEA IRISARRI etxalartarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 7an. Zorionak familia guziaren partetik.



Igantziako **ENAUT, JOSU** eta **OIER LAKA**. Karrikaondoko hirukoteak ibeltzaren 22an eta otsailaren 1 eta 4an bertze urte bat bete du. Aunitz urtez Aratz eta amaren partetik. Ea pastelak ailegaten diren! Muxu haundi bana.

Azkenean,
harpidetza baino merkeagoa da **TTIPI TXARTELA**



- Aldizkaria doan
- 44 dendetan deskontuak
- Hamabostero zozketa izugarriak
- %25eko desgrabazioa errentaren aitortpenean

40€

%10

% 8

% 5

OPARIAK

ALDIZKARIA

BAZTAN

MALERREKA

BORTZIRIAK

LEITZA

TTIPI-TTAPAren urteko kuotak 34 euro balio du.
TTIPI TXARTELA dutenek, 30 euro pagatuko dute urtearen azkenean,
Errentaren Aitortpenarekin 10 euro itzuliko baitzaie

Autoak eta bizikleta tailerrak | Auto eskolak | Argazki-dendak | Arropa-dendak | Bitxi-dendak | Estetika Zentrua | Etxetresnak | Kirol-dendak
Haurren gauzen dendak | Lentzeniak | Liburu-dendak | Nutrizioa eta dietetika | Opan-dendak | Optikak | Pentsuak | Tindategiak | Zapata-dendak

Ikastola, dena bat dator



bera@ikastola.net
www.labiagaikastola.com

AURREMATRIKULAZIO GARAIA: OTSAILAREN 20 TIK 26 RA



TANTIRUMAIRU IKASTOLA
ARRETXEA, 13
31770 LESAKA
Tel. 948 637 308
tantirumairu@ikastola.net
www.tantirumairuikastola.com



LABIAGA IKASTOLA
ALTZATE, 12
31780 BERA
Tel./Faxa: 948 630172
948 631558

WhatsappTel. 608677446

bera@ikastola.net
www.labiagaikastola.com



NIE
NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA
San Anton, 3 - 1 - 31001 Iruña
T. 948 222196
nie@ikastola.net
www.nieikastola.net





AURREMATRIKULAZIO EPEA:

Haur eta Lehen
Hezkuntza:
otsailaren 9tik 13ra

DBH, Batxilergo eta
Lanbide Heziketa:
datak zehaztear daude



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 948 625 000
<http://leestokiona.educacion.navarra.es/>



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



LESAKA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
<http://irain.educacion.navarra.es/>

Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz | Doan | Integratzailea
Jantoki eta garraio zerbitzuarekin | Teknologi berriez baliatuta
Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan | DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan

